
EUSKARAREN AGENDA ESTRATEGIKOA 2017-2020

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

EUSKARAREN AGENDA ESTRATEGIKOA 2017-2020



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2018

Obra honen erregistro bibliografikoa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan kontsulta daiteke:
www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac/

1. edizioa: 2018ko apirila

Ale kopurua: 500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa: ekipoPO

Lege-gordailua: VI 21/2018

Inprimaketa: Imprenta Sacal, SL

Euskararen Agenda Estrategikoa

Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020 Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak onartu zuen 2017ko abenduaren 19an egindako bilkuran.

Aurkibidea

//	HITZAURREA.....	7
1 /	SARRERA.....	9
2 /	HELBURU PROGRAMATIKOA.....	10
3 /	EGOERAREN DIAGNOSIA.....	18
4 /	JARDUN-EREMUA, ESKUMEN-ALORRA ETA ESPARRU JURIDIKOA.....	28
5 /	HELBURU ESTRATEGIKOAK.....	30
6 /	GAUZATU BEHARREKO EKINTZAK ETA JARDUERAK.....	32
7 /	GOBERNANTZA, KUDEAKETA EREDUA ETA JARRAIPEN-EBALUAZIO SISTEMA...	40
8 /	PLANARI ESLEITUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK.....	48
9 /	OINARRIZKO DOKUMENTAZIOA.....	50
//	ERANSKINA: EUSKARAREN AGENDA ESTRATEGIKOARI BURUZ ONETSITAKO EBAZPENAK.....	51

/ HITZAURREA

Ibiliz egiten da bidea, eta euskarak bide emankorra egin du azken hamarkadotan. Nekez topatuko dugu mundu osoko hizkuntza gutxituen artean antzeko adibiderik. Ibilian-ibilian, euskal gizarteak, borondatez eta ekimenez, euskara egoera berri batera eraman du. Eta urrats argiak ematen jarraitzeko bultzada berriak behar dituzte hala euskarak nola euskal gizarteak. Aurrera egiten jarraitzea da, hain zuzen ere, eskuetan duzun *Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020* dokumentuaren helburua. Lau urteko epealdirako bide-orri zehatz eta landua aurkezten dugu, pausoz pauso aitzinatzen jarraitzeko.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak legealdiaren hasieran aditzera emandako lau konpromisoak Agenda honen oinarrian daude. Euskaldunon kopurua areagotzen jarraitzea da lehen konpromisoa, azken hamarkadotan egindako bideari eutsiz. Bigarrena euskararen erabilera sustatzen jarraitzea da, batez ere aisialdian eta eremu ez formaletan. Hirugarrenik, herritarren hizkuntza eskubideen bermean eraginkortasunez aurrera egiteko konpromisoa berretsi da. Azkenik, euskararen hiru lurraldeetako erakundeen arteko lankidetzeta antolatu eta indartzeko konpromisoa dago, baita euskararen nazioarteko aitormena bultzatzekoa ere.

Konpromiso horiek lortzeko, bederlatzi helburu estrategiko hartu ditu Eusko Jaurlaritzak. Eta horiek guztiak kuantifikagarriak izango dira datozen urteotan. Hau da Agendak dakarren nobedade nagusietako bat: helburu estrategiko bakoitzari lotuta zenbait adierazle neurgarri zehaztu dira. Hortaz, ondoko orrialdeotan jasotako helburuak ez dira arinkeriaz bildu; dokumentua Eusko Jaurlaritzak euskararekiko duen konpromisoaren erakusgarria da, eta erakundearen lan-ildoak horiek betetzera bideratuko dira. 2020an neurtu ahal izango da zer neurritan bete diren aipatu helburuak.

Agendan, halaber, euskararen zehar-lerrotasuna bermatu da, eta honen helburu estrategikoak Eusko Jaurlaritza osoari dagozkiola nabarmendu da. Gobernu Programan txertatuta dagoen modura, sail guztietara eta bakoitzera eramango da euskararen erabilera administrazioan bermatzeko konpromisoa, bai eta lan-hizkuntza izatekoa ere, gaztelaniarekin batera.

Egindako bideak ikuspegi zabala ematen digu, bai eta etorkizunari berme handiz heltzeko eskarmentua ere. Euskara indarberrituta heldu da XXI. mendearen hastapenera, baina aurretik bide maldatsua du eta guztion

kemena beharko du hazten jarraitzeko. Mundu aldakor eta globalizatu honetan, euskal gizartearen bultzadaz gain, estrategia argiak beharko ditu euskarak. Agenda honetan bide bat proposatu da eta zedarri berri bat ezarri da jomuga. Ekiogun.

BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI
Kultura eta Hizkuntza Politika sailburua

1/ SARRERA

Euskarak aurrera egin du etengabe azken hiru hamarkadatan, eta zabaldu egin da ez hain aspaldi ezinezkoak iruditzen zitzaizkigun esparru batzuetan: administrazioan, hezkuntza sisteman, hedabideetan, teknologia berrietan... Gorakada hori ez da berez eta besterik gabe gertatu. Horren atzean, elebitasun orekatuaren aldeko legedia egon da, hizkuntza politika eraginkorra, eta, oroz gainetik, herritarren atxikimendua. Bai, euskara normalizaziorako bidean jarri da euskal herritarrek hala nahi izan dutelako, horren aldeko apustu garbia eta ausarta egin dutelako. Nahi hori gogoan, herri erakundeen eta gizarte-ekimenen ahaleginaren ondorioz, esan daiteke inoiz baino euskaldun gehiago dagoela eta inoiz baino gehiago erabiltzen dela euskara, batez ere eremu formaletan. Euskararen biziberritze prozesua eredugarria da nazioartean, eta hizkuntza gutxituak dituzten herri askok guregana jotzen dute, gure esperientziaz baliatzeko. Horrek esan nahi du gure helburua lortu dugula? Ezta pentsatu ere.

Hiru hamarkada atzera begiratuta, euskararen egoera asko aldatu da bidean egindako lan guztiari esker. Gaur egun, bestelako gizarte- eta hizkuntza-parametro batzuetan bizi garenez, horiei begira jarritako erronkei erantzutea dagokigu; iraganetik ikasi dugunetik tresna berriak erabiltzea, eta gizartearen ezaugarriei erantzuten dieten galderak planteatzea.

Oraindik lan handia dugu eginkizun; hala ere, bide onetik goaz eta ez zaigu indarririk falta aurrera segitzeko: presarik gabe, baina gelditu barik.

2/ HELBURU PROGRAMATIKOA

Euskararen legeak hizkuntza eskubide batzuk aitortzen dizkie herritarrei eta betebeharrak ezartzen dizkie administrazioei, hizkuntza eskubide horiek bete eta berma ditzaten. Euskara eta gaztelania, biak dira EAEko hizkuntza ofizialak; nolahi ere, legezko berdintasun hori maiz ez dator bat benetako egoera sozialarekin. Horiek horrela, euskaraz bizi nahi duten herritar askok oraindik arazoak izaten dituzte, zenbait eremu publikotan eta pribatutan haien hizkuntza eskubideak urratzen direlako. Egoera horren aurrean, administrazioek bereziki, baina baita enpresek eta bestelako erakunde pribatuek ere, ahalegina egiten jarraitu behar dute gure bi hizkuntza ofizialak legezko berdintasun horretatik egiazko berdintasun sozialera pasa daitezen.

Gure helburuak izan behar du euskara gero eta gehiago erabiltzea esparru sozial guztietan, hiztunek euskararekin gozatzea; euskara erakargarri egitea, batez ere, gazteentzat; euskara prestigiozko hizkuntza bihurtzea; euskara belaunaldi berriei transmititzea; euskaldunok euskarari eustea eta euskaraz ez dakitenak euskara ezagutzera gonbidatzea. Ildo horretatik, XI. legealdirako *Euskadi 2020 Gobernu Programan* euskararen arloan dagoen herri-helburua hau da: 25 urtetik beherakoen % 75 euskal hiztun izatea. Gero eta eleanitzagoa den gizarte honetan, gutxienez, hizkuntza bizikidetzarekiko sentiberatasunean oinarritzen den elebitasun gero eta orekatuagoa behar dugu, gizarte kohesionatu baten mesedetan; horretarako, ahalik eta adostasunik zabalena bilatu behar dugu gure gizartean.

Euskal Gobernuak konpromiso sendoa du euskararekiko, eta horren erakusgarri da *Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020*; Gobernuaren tresna eta makulu da, legealdi honetan Gobernuak hizkuntza politikarekiko dituen konpromisoak eta ekimenak behar bezala planifikatzeko eta gauzatzeko.

Agenda honen eginkizuna da euskararen zehar-lerrotasuna bermatzea, bai administrazioaren eremu guztietan, baita gizartean ere. Izan ere, Agenda hau –beste 14 planekin batera– Gobernu Programan txertatuta egoteak esan nahi du euskara ere sail guztietako gaitzat hartu dela. Euskarak Gobernuaren zehar-lerroa behar du izan; euskararen erabilera bermatu behar da administrazio lanean eta herritarrekiko harremanetan; horretarako, euskara sail guztietako lan hizkuntza izan dadin aurrerapausoak ematea da garrantzitsua. Presente

egon behar du sail guztietako plan estrategikoetan eta abian jartzen diren proiektu eta ekimen guztietan, gaia eta edukia edozein delarik ere. Horrela, Agenda Eusko Jaurlaritza osoari dagokio.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren ardura da akuilu lana egitea, jardunbide horretan sortzen diren beharrei erantzutea, laguntza tresnak eskaintzea...

Berrikuntza etengabearen ikuspegia orokortu nahi dugu Eusko Jaurlaritzaren eta, oro har, herri administrazioen hizkuntza politikan. Eman, ematen eta emango ditugun pausoen gaineko etengabeko gogoeta, berrikuspen kritikoa, espermentazioa eta berrikuntza ahalbidetu nahi ditugu; lehenetasuna eman nahi diegu gogoeta partekatuei eta ezagutza trukerako joerei. Hizkuntza politika bat diseinatu nahi dugu bizkor bilakatzen ari den gizartearen ezaugarriei, beharrei eta nahiei gertu-gertutik erantzungo diena.

Horretarako, lehendik egindako lanari ere begiratu diogu. Euskararen Aholku Batzordeak garatutako *Euskara 21. Itun berri baterantz, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP)* eta *Eta hemendik aurrera zer?* dokumentuetan jasotako ildo eta gogoeten jarraipena da Agenda hau. Kate beraren kate-begi gara. Kate-begi berria.

Hortik abiatuta diseinatu dugu Agenda. Euskara sustatzeko hizkuntza politika sustatzailea eta iraunkorra jasotzen du, azken hamarkadetan euskarak gizartean izan duen aurrerapena sendotzeko eta bizkortzeko. Hainbat erakunde, gizarte eragile eta adituren arteko elkarriketan eta elkarlan etengabe koordinatuan gauzatu nahi da: hala euskararen esparruan, nola nazioartean. Aurreikusitako diren helburuak ausartak izanagatik lorgarriak ere badira; izan ere, gizartearen borondatean eta adostasun zabaleko planteamenduetan oinarrituta daude.

Azken batean, *Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020* ezinbesteko baliabidea da euskara normalizatzeko gizartearen esparru guztietan zein Eusko Jaurlaritzan; hori guztiori, Eusko Jaurlaritzako sail guztien ekinbide koordinatuari esker, zeharkakotasunez. Horixe gure erronka.

Euskadi 2020 Gobernu Programa

2017ko otsailaren 24an Iñigo Urkullu lehendakariak XI. legealdirako *Euskadi 2020 Gobernu Programa* aurkeztu zuen. Dokumentu horretan, euskal gizartearekin datozen lau urteetarako hartutako konpromisoak daude jasota. Gobernu Programak 4 oinarri, 10 ardatz, 175 konpromiso eta 650 ekimen ditu.

Euskararekiko konpromiso nagusiak hemen jaso dira: **II. oinarria: Giza garapena, gizarteratzea, berdintasuna eta kalitatezko zerbitzu publikoak; 3. ardatza. Bizikidetzarako giza eta kultur garapena: Euskara eta hizkuntza bizikidetzeta.**

116. konpromisoa: *Euskararen gizarte-hazkundera finkatu, euskal hiztunen kopurua handituz eta haien hizkuntza gaitasuna hobetuz.*

1. **ekimena:** Helduen euskalduntzea sustatu eta babestu.
2. **ekimena:** Helduen euskalduntzea kudeatzeko sistema bakar bat bultzatu, HABEren koordinazioaren pean, zeinak euskararen irakaskuntza sustatzeari lotutako kontu guztiak hartuko baititu kontuan.
3. **ekimena:** Helduek B2 maila lortu arte euskara-ikaskuntza doakoa izateko prozesua amaitu. Ikasketa horiek doakoa izateko, aurreikusitako maila akademikoak gaingitu beharko dira.
4. **ekimena:** Tituluak lortzeko sistema hobetu, euskaraz hitz egiten duten pertsonen kopurua handitzeko eta pertsona horiek ahalduntzeko.

117. konpromisoa: *Aisialdian eta formalak ez diren eremu funtzionaletan zabaldu euskararen erabilpena.*

1. **ekimena:** Euskararen erabilpena aisialdian sustatu.
2. **ekimena:** *Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020* bultzatu.
3. **ekimena:** Interneten eta tresna digitaletan euskarazko edukiak sortzea eta sartzera bultzatu, unibertsitateekin, eta hezkuntza-, kultura- eta aisialdi-arloko edukiak sortzen dituzten erakundeekin eta pertsonekin lankidetzan.
4. **ekimena:** Komunikabideetan eta ekintza kulturaletan euskararen erabilpena sustatu, eta, aldi berean, haren erakargarritasuna eta prestigio soziala indartu.

118. konpromisoa: *Eraginkortasunez egin aurrera, herritarren hizkuntza eskubideak eremu publikoan eta pribatuan gauzatzeko aldera.*

1. **ekimena:** Herritarrek hizkuntza eskubideak baliatzeko orduan aurrera egin.
2. **ekimena:** Nagusiki euskara erabiltzen duten eremu geografikoak indartu.
3. **ekimena:** Zerbitzu publikoetan arreta elebiduna ematen jarraitu, eta *Euskararen Erabilera VI Plana (2018-2022)* bultzatu Eusko Jaurlaritzan.

4. **ekimena:** Euskararen corpusaren garapena areagotu eta haren adierazteko gaitasuna aberastu, gazteen eta hiztun berrien premiei erantzuteko.

119. konpromisoa: *Euskararen hiru lurraldeen erakundeen arteko lankidetzari antolatuta eta indartu, eta euskararen nazioarteko aitormena bultzatu.*

1. **ekimena:** Nafarroako Gobernuaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren (EEP) arteko lankidetzari indartu.

2. **ekimena:** Euskararen eta hizkuntza bizikidetzaren inguruan ahalik eta adostasun sozial eta politiko handiena lortu eta indartu.

120. konpromisoa: *Euskal kulturaren eta euskararen nazioarteko proiektzioa sustatu, Etxepare Institutuaren bidez.*

1. **ekimena:** Etxepare Institutuaren rola indartu, Euskadiren esanetara dagoen kultura-arloko diplomaziazko tresna gisa.

2. **ekimena:** Kanpoan euskararen irakaskuntza sustatu, irakurlegoen bidez, euskararen eta euskal kulturaren katedren eta Euskara Munduan programaren bidez.

3. **ekimena:** Euskadiko sektore kulturaletikiko koordinazioa bultzatu, haren presentzia nazioartean sustatze aldera.

Horrez gain, Gobernu Programan 15 herri-helburu ezarri dira; 10.a euskarari lotuta dago: **25 urtetik beharokoen % 75 euskal hiztun izatea.**

Horrenbestez, *Euskararen Agenda Estrategikoa*, funtsean, Gobernu Programan euskararekiko hartutako konpromisoak eta ekimenak jasotzen ditu; eta zehaztu diren egiteko guztiak 2017-2020 epealdian abian jartzekoak edo gauzatzekoak dira.

Gobernu Programaren beste konpromiso batzuen barnean ere badaude euskararekin lotura zuzena duten ekimen jakin batzuk. Beraz, beharrezkoa da beste konpromisoezikiko lotura horiek kontuan izatea eta beste alorretako ekimenek hizkuntzarekin duten lotura aztertzea.

Ondoren xehatuko diren sailtako, estrategietako eta agendetako arduradunekin harremanak garatzean, hizkuntza –euskara– zehar-lerro gisa ulertuz egingo da lan. Horrek garamatza eremu guztietako helburu estrategikoetan hizkuntzaren kudeaketaz gogoetatu eta ekarpenak egitera. Hala, hizkuntzarekiko loturak izan beharko lituzkeen helburuak aztertu eta garatzea egokituko da, baita aurrekontu ekonomikoetan horren guztiaren agerpena egitea ere.

Horrek esan nahi du eremu guztietako kudeaketa planetan hizkuntzaren kudeaketa ere kontuan hartzea eta horretarako helburuak nahiz strategiak elkarrekin finkatzea. *Euskararen Agenda Estrategikoa* ebaluatuko duen

Jarraipen Batzordean zehaztuko da sail bakoitzarekiko harremana zein izango den, baita sail bakoitzak hizkuntzaren kudeaketari lotuta ezarriko dituen helburu eta estrategia egokienak zein izango diren ere. Hizkuntza Politika Sailburuordetzak gidatuko du Jarraipen Batzorde hori, baita ondoren aipatuko diren harremanak kudeatuko ere.

Hala, *Euskararen Agenda Estrategikoa*k ondoko loturak eraiki eta gaiak jorratu nahi ditu:

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituren Saila

18. konpromisoa: *Euskadi Europako erreferente bihurtu Elektronikaren, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak aplikatzen, industriaren esparruan.*

1. ekimena: *Euskadi 2020 Agenda Digitala* ezarri, Euskadin behar bezala sustatzeko Informazioaren eta Jakintzaren Gizartea, eta, betiere, teknologiek lehiakortasuna, ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko ematen dituzten aukerak balia daitezzen lagunduz.

Lotura: *Euskadi 2020 Agenda Digitala* dituen helburuetan eta estrategietan euskara ere kudeatzeko bidea elkarrekin jorratu. Euskarak Ingurune Digitalean duen presentzia aztertu, eta euskararen erabilera sustatzeko helburu nahiz aukerak elkarrekin aztertu eta bultzatu.

Lehendakaritza

21. konpromisoa: *Basque Country nazioartekotzeko estrategia globala garatzea, eremu publiko eta pribatuarekin elkarlanean.*

Lotura: *Basque Country Nazioartekotze Estrategia*n euskararen eremutik egiten den hizkuntza eta kultur aniztasunari lotutako irakurketa elkarrekin jorratu, eta proposamenak landu. Mugaz gaindiko hizkuntza-mugak aztertu, eta oztopoak gainditzeko estrategia eta neurriak elkarrekin eraiki.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila

28. konpromisoa: *Bikaintasuna eta jasangarritasuna sustatu euskal turismo-jardueran.*

1. ekimena: 2017-2020 urteetarako *Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Planaren* esparruan, Turismoaren Plan Gidaria egin.

Lotura: *Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Plana 2017-2020* dokumentuan hizkuntza gutxituen presentzia bermatu, eta hizkuntzen kudeaketa orekatua sustatzeko aukerak elkarrekin aztertu.

Hezkuntza Saila

93. konpromisoa: *Eleaniztasuna bultzatu eskolan.*

1. **ekimena:** Elebitasuna bultzatu hezkuntza eleanitzaren barruan, zona bakoitzaren errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuta.
2. **ekimena:** Irakasleak hizkuntzetan egunean jartzea bultzatu, bai eta hizkuntzen didaktikaren gaineko prestakuntzan ere, batez ere hizkuntzen tratamendu integratuari eta integralari lotuta, eta irakasleen Hizkuntza Prestakuntzarako eta Metodologiarako Plana sustatuz.

102. konpromisoa: *Euskarazko prestakuntza-zikloak ezartzen aurrera egin, eta Lanbide Heziketan eleaniztasuna bultzatzen jarraitu.*

1. **ekimena:** 2020rako Lanbide Heziketako ikasleen % 50ek ikasketak euskaraz egin ditzaten lortu.

Lotura: hezkuntza eleanitzari lotutako hezkuntza proposamena koordinatu Hezkuntza Sailarekin harremanetan; Lanbide Heziketan euskarazko formazioa eta praktikak sustatzeko aukerak aztertu.

Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

109. konpromisoa: *Euskadiko sortzaileen sarearen alde egin, sortzaileei eta kultura-industriei lagunduz.*

1. **ekimena:** Kultura-industrien garapena indartu.

110. konpromisoa: *Euskadiko kultura-produkzioaren ikusgarritasuna eta irisgarritasuna indartu.*

1. **ekimena:** Euskal produkzio kulturala prestigiotsu bilakatu, eta ikustarazi.
2. **ekimena:** Audientzien fidelizazioa eta publiko berriak sortzea bultzatu.

112. konpromisoa: *Erreferentziazko azpiegiturretan egiten diren ekitaldien eginkizun eragilea eta nazioarteko hedadura finkatu.*

1. **ekimena:** Erreferentziazko erakundeek eta ekitaldiek duten eginkizun eragilea indartu.

121. konpromisoa: *EITB zerbitzu publikoa izatea bermatu eta bikaintasunezko kudeaketa sustatu.*

124. konpromisoa: *Turismoa bultzatzen duten eta inguruan aberastasuna sortzen duten kirol ekitaldien antolakuntza babestu.*

1. ekimena: Kirola babestu haren balio tradizionalak defendatuz: berdintasuna, integrazioa, tolerantzia, elkartasuna, biolentziarik eza.

Lotura: kultura-arloko estrategiak hizkuntzaren kudeaketan txertatzeko bidea egin; euskarazko kultur eskaintzaren eta kontsumoaren azterketa egiteko adierazle sisteman sakondu; euskarazko zerbitzu publikoak sustatzen jarraitu.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

125. konpromisoa: *IV Gazte Plana onartu (Gazteplana 2020).*

1. ekimena: IV. Gazte Plana (*Gazteplana 2020*) bultzatu. Bertan, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek, udalek eta zenbait eragile sozialek parte hartzen dute euskal gazteen premia nagusiei erantzuna emateko gai hauek aintzat hartuta: laneratztea, etxebizitza eskuratzea, balioetan hezteka, osasuna, ekintza soziala, aisialdia, kultura, mugikortasuna eta partaidetza.

Lotura: Gazte Planean euskararen kudeaketari lotutako helburuak eta estrategiak elkarrekin jorratu; gazteak eta euskara uztartzeko gogoetak, programak eta ikerketak partekatu.

Bestalde, badira kontuan izateko bestelako agenda edo estrategia batzuk:

Euskadi 2020 Agenda Digitala (2016-2020)

Euskadi 2020 Agenda Digitalaren 28. trakzio egitasmoa euskarazko wikipedia sustatzea da.

Gobernu Programan ezarritako konpromisoen ondorioz, XI. legegaldiko beste bi plan estrategiko hauekin ere zerikusia du *Euskararen Agenda Estrategikoak*:

Basque Country Nazioartekotze Estrategia Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Plana 2017-2020

Nazio Batuetako Erakundearen Garapen Jasangarrirako 2030 Agendan eta *Europar Batasuneko Europa 2020 Estrategian* garrantzitsua da hizkuntza aniztasunari ere aipu egitea. Gaur egun, Agenda eta Estrategia horietan ez zaie hizkuntzei (are gutxiago hizkuntza gutxituei) erreferentzia egiten, eta ekarpen hori egiteari ezinbestekoa deritzogu.

Nazio Batuetako Erakundearen Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda

Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren honako helburu eta jomuga honetan kokatuko genuke Euskararen Agenda Estrategikoa:

11. helburua: *Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, segurua, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.*

11.4. jomuga: Munduko ondare kulturala eta naturala babesteko eta zaintzeko esfortzuak areagotzea.

Europar Batasuneko Europa 2020 Estrategia

Hezkuntzarekin, prestakuntzarekin, ezagutzarekin, berrikuntzarekin, kualifikazioekin, enpleguarekin, gazteekin eta agenda digitalarekin zerikusia duen neurrian, *Europa 2020 Estrategiaren* ekimen enblematiko hauei lotuta dago *Euskararen Agenda Estrategikoa*:

- “Berrikuntzarako Batasuna” (hazkunde adimentsua)
- “Gazteria mugimenduan” (hazkunde adimentsua)
- “Europarako agenda digital bat” (hazkunde adimentsua)
- “Kualifikazio eta enplegu berrien agenda” (hazkunde integratzailea)

3/ EGOERAREN DIAGNOSIA

Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020 lantzeko eta abiapuntuko diagnostikoa egiteko, dokumentu hauek erabili dira, nagusiki:

- **Euskara 21. Itun berritu baterantz.** Euskararen Aholku Batzordea, 2009
- **Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP).** Euskararen Aholku Batzordea, 2012
- **Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP). Diagnostikoari buruzko AMIA dokumentuarekin osatua.** Euskararen Aholku Batzordea, 2015
- **Eta hemendik aurrera zer?** Euskararen Aholku Batzordea, 2016
- **Euskararen Agenda Estrategikoa 2013-2016.** Eusko Jaurlaritza, 2014
- **VI. Inkesta Soziolinguistikoa: Euskal Autonomia Erkidegoa.** Eusko Jaurlaritza, 2016
- **Hizkuntzen Erabileraren VII. Kale-neurketa.** Soziolinguistika Klusterra, 2017

Dokumentu horiez gain, kontuan hartu dira euskararen sustapenari buruz Eusko Legebiltzarrak eta Eusko Jaurlaritzak emanak dituzten lege-araudiak, Agenda honen osagai diren berariazko erabilera planetan jaso diren dokumentu zerrenda propioak (plan bakoitzean jasotakoak) eta Euskararen Aholku Batzordearen eskutik 2016. urtean argitaratutako hainbat txosten eta argitalpen (hala nola, *Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoa (EGOD)*; *Euskarazko IKTak: gomendioak herri-aginteentzat*; *Gu Gazteok: 12-14 urteko gazteen hizkuntza egunerokotasunera hurbiltzeko ikerketa parte-hartzailea...*).

Euskara 21. Itun berritu baterantz

Euskara biziberritzeko ahaleginean, mende honen hasieran egindako gogoeta eta bateratze saiorik adierazgarriena izan da *Euskara 21* prozesua, partaide kopuruz eta aniztasunez. Gogoeta horren ondorio gisa, *Euskara 21. Itun*

berritu baterantz dokumentuak egiten duen ekarpena azpimarratu behar da. Hauexek dira printzipio nagusiak:

- Adostasunean, pertsuasioan eta tinkotasun demokratikoan oinarritutako hizkuntza politikaren premia.
- Progresibotasuna: atxikimendua, egingarritasuna eta erritmo egokia lotzen dituen printzipioa.
- Euskara, nazio adskripzioa eta politika: erantzukizun sozialaren talaiatik zaindu beharreko harremanak.
- Euskara biziberritzea, herritar ororen erabakimenaren baitan
- Adostasunez, itun berritu baterantz.

Printzipio horien esparruan, dokumentuak jardun-ildo nagusi hauek identifikatzen ditu:

1. Euskararen ezagutza eta erabilera belaunaldi berrietan bermatzea.
2. Euskara ohiko hizkuntza izango duten arnasmune eta funtzioak zaindu, indartu eta hedatzea, euskararen belaunez belauneko transmisioa bermatzeko eta erreferentzialtasun soziala indartzeko. Azken batean, helburua ez baita euskararen ezagutza zabaltzea, besterik gabe, baizik eta euskal hiztunak sortzea.
3. Familia-transmisioa bermatzea, oso bereziki 25 urte barru izango diren 30 urtez azpiko gazte elebidunek euskara ere izan dezaten etxeko hizkuntza. Hauxe dugu etorkizunaren gako nagusia.
4. Euskal hiztunen erkidegoa trinkotzea, euskararen erabilerarako sare operatibo presentzialak zein birtualak hedatuz eta indartzuz.
5. Hiri handietan euskara erabiltzeko aukerak areagotzea, familia euskaldunei, gazteei eta haurrei lehentasuna emanaz.
6. Elebitasun pasiboa helduen munduan, eta gutxieneko helburutzat, areagotzea eta prestigiatzea.
7. Euskarazko kultura kontsumoa indartzea, euskal kultura industria, ekoizle eta sortzaileekiko ikuspegi askatzaile batetik.
8. Euskara eta haren munduak etorkinengana hurbiltzea, hauen integrazioa zabala eta aberasgarria ahalbidetzeko eta euskara erabilera-eremu demografikoki dinamikoetara hurbiltzeko xedez.
9. Euskaraz komunikatzeko estandarrak malgutzea eta aberastea, hiztun berrien adierazkortasunaren mesedetan. Zuzentasunaren irizpide bakarretik komunikagarritasunarenera eta adierazkortasunarenera igarotzea.
10. Hizkuntza eskubideak eremu publikoan aitortzeko ez ezik errespetatzeko bidean, euskara erabiltzeko aukerak bermatzea.
11. Euskararen erakargarritasuna lantzea eta era egokian proiektatzea: euskarak mundu ugari ditu bere baitan, eta euskarara datozenen munduentzako

tokirik ere badu bere barnean. Proiektatzen dugun baino anizkoitzagoa da euskararen unibertsoa, eta are anizkoitzagoa egin beharra dugu, gizartearen pare anizkoitza izatera iritsiko bada.

12. Euskararen irudiari prestigioa ematea, kultura eta komunikazioaren alorreko lorpenak garbi proiektatuz, batetik, eta, bestetik, euskal gizartearen kohesiorako osagai ezinbestekoa dela praktikan eta diskurtso publikoan adieraziz.
13. Hizkuntzaren teknologiak (informazio eta komunikazioaren teknologiak) euskararen garapenerako baliatzea, sarerako euskarazko edukiak sortzea eta komunikaziorako sare birtualak era egokian baliatzea, euskararen normalizazio eta erabilera aukeren mesedetan. Izan ere, euskarak informazio eta komunikazio teknologiak baliatu behar ditu, horixe baitu ezinbesteko baldintza hizkuntza guztiz garatua izatera iristeko.
14. Hizkuntza politikaren inguruko akordiorik zabalena etengabe elikatu eta sendotzea, euskararen biziberritzea eta kohesio soziala estu lotuko dituen itun berri baten bila.

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP). Diagnostikoari buruzko AMIA dokumentuarekin osatua

Euskara Sustatzeko Ekintza Planak, 2012an onartutako hamar urterako planak, euskara biziberritzeko plangintzan *EBPN*ren lekukoa hartu du. Izaera operatiboa du, eta *Euskara 21. Itun berri baterantz* dokumentuan ezarritako ildoak eta helburuak lantzen ditu. Horretarako hiru helburu estrategiko ezartzen ditu, eta helburu bakoitzari hainbat esparru lotzen zaizkio:

- **Euskararen jabeakuntza edo ezagutza.** Euskararen jabetze prozesu horretan hiru esparru nabarmentzen dira: familia bidezko transmisioa, irakaskuntza sistema eta helduen euskalduntzea.
- **Euskararen erabilera.** Erabilerari eragiten dioten faktore objektiboak hauexek dira, besteak beste: hiztun kopurua, gaitasuna eta inguruko sarea. Horiekin batera, ordea, norbanakoaren motibazioa eta borondatea –faktore subjektiboak, alegia– ere erabakigarriak dira hizkuntzaren erabileran.
- **Euskararen elikadura.** Hizkuntza era egokian erabiltzeko, hiztunak ereduak eta edukiak behar ditu, bere hizkuntza jarduna aberasteko. Sail honetan sartzen diren esparru nagusiak hauek dira: liburugintza, kulturgintza, publizitatea, corpus-plangintza eta euskararen kalitatea, hedabideak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.

Edukiari dagokionez, *ESEPEk* 340 ekintzatik gora jasotzen ditu 16 esparrutan banatuta: familia bidezko transmisioa, irakaskuntza, euskalduntze-alfabetatzea, administrazioa, gune geografiko euskaldunenak, arlo sozioekonomikoa, aisia eta kirola, liburugintza, kulturgintza, publizitatea, corpus-plangintza eta euskararen kalitatea, hedabideak, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, sentsibilizazioa eta motibazioa, barruko proiektzioa eta kanpoko proiektzioa.

2013an Eusko Legebiltzarrak berretsi egin zuen *ESEP*; orduan beharrezkotzat jo zuen honako hau:

Euskararen Aholku Batzordeak 2013ko ekainaren 28ko Osoko Bilkuran aho batez onetsitako lan programan *ESEPen* diagnostikoa eta adierazleak sakondu eta osatzeari buruz finkatutakoa egitea (...) *ESEPEk* jasotzen duen diagnostikoan sakondu eta osatzea, gaur egun eremu bakoitzari buruz dugun ezagutzatik abiatuta. Helburua, jakina, *ESEPen* beraren hurrengo urteetako garapenari oinarri sendoa eskaintzea da. Diagnostikoaren lanketa horretan, eta *ESEPEk* finkatzen dituen neurrien adierazleak izango direnez abiapuntua, adierazle horiek diagnostikoa behar bezala osatzeko izan dezaketen erabilgarritasun-maila aztertuko da, nolabaiteko fintzerik behar lezaketanak identifikatu eta lantzeko.

Euskararen Aholku Batzordeak 2014ko abenduaren 1ean egindako Osoko Bilkurari aurkeztu zitzaion Euskara 21 Batzorde-atalak lehenago itxitzat eman zuen *ESEPen* diagnostikoa osatzera datorren AMIA dokumentua, modu horretan betez bere gain hartutako konpromisoa.

AMIA dokumentuak jasotzen ditu *ESEPen* hiru ildo estrategikoen eta zeharlerro baten analisisien emaitzak. Hiru ildo estrategikoak (jabekuntza, erabilera eta elikadura) aztertzeko *ESEPEk* berak Eusko Jaurlaritzaren eremurako 2013rako aurreikusten duen diagnostikoan jasotako informazioa baliatu da. Motibazio eta jarrereri dagokien zeharlerroa ikertzeko, berriz, eta aipaturiko diagnostikoaz gain, Euskara 21 Batzorde-atalak berak, Euskararen Aholku Batzordearen enkarguz, bultzatu duen *Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoen Lanketa* baliatu da.

Eta hemendik aurrera zer?

Euskararen Aholku Batzordearen Euskara 21 Batzorde-atalak *Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren* diagnostikoan sakontzeko osatua den AMIAREN gaineko eztabaida egin zuenean, batzorde horretako kide batzuek hala proposatuta, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak “eta orain, 15-20

urteko perspektiban, zer?” galderari erantzungo zion txostena idazteko konpromisoa hartu zuen.

Horrela, 2015eko uztailaren 10ean Euskara 21 Batzorde-atalaren aurrean *Eta hemendik aurrera zer?* dokumentua aurkeztu zen. Dokumentuaren bokazioa eztabaidara eta adostasuna bilatzera irekia izatea zenez, eztabaidatzeari ekitearekin batera erabaki zen ekarpenak egiteko epea irekitzea. Ekarpenak jaso eta hainbat batzarretan eztabaidatu ostean, 2016ko apirilaren 29an Euskara 21 Batzorde-atalak, aho batez, onartu zuen *Eta hemendik aurrera zer?* dokumentua. Ondoren, Euskararen Aholku Batzordeak (2016ko maiatzaren 11ko Osoko Bilkuran) eta Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak (2016ko uztailaren 12ko batzarrean) bere egin zuten.

Euskararen Agenda Estrategikoaren oinarrian dago dokumentuaren atarikoan egiten den politika publikoen definizioa, eta bere egiten du honako ideia hau:

Testu hau politika publikoen esparruan kokatzen da batez ere. Politika publikoak herri-aginteen jarduerak dira (ekintzak gehi ekintza horiek erabakitzeo prozesuak), gizarteko arazoak konpontzeko asmoz eginak, eta legeen eta ohitura sozialen printzipioetan oinarrituta daude. Zehazki, politika publikoak, arrakastatsua izango bada, honako ezaugarri hauek izan behar ditu: gizartearen arazoak zatiketa politiko edo sozialik eragin gabe konpontzea, eta herritarren parte hartze aktiboa zein prozesu demokratikoak sustatzea; hain zuzen ere, horietan dira euskararen sustapenean bilatzen diren ezaugarriak.

Euskara biziberritzeko prozesua ez da soilik herri administrazioen eskutik emango; euskara biziberrituko bada gizarte osoaren inplikazioa eta babes beharrezkoa izango da, eta sektore publikoaren zein pribatuaren arteko elkarlana eta osagarritasuna funtsezkoak izango dira.

Gizartean, sektore publikoarekin batera, hor ditugu ekimen sozialen sektorea, sektore pribatua eta herritarrak oro har, eta elkarrekiko orekan egon behar dute, bakoitza bere erantzukizunekin eta bere eginkizunekin. Bestela esanda, administrazioek sustapen lana gauzatu eta gizarteari lagundu egin behar diote, aukerak sortu behar dituzte, baina hizkuntzaren biziberritzea gizartean ez dute administrazioek gauzatu, ez behintzat beraiek bakarrik, ezta beraiek nagusiki ere; hori gauzatzea gizabanako eta gizarte osoaren zeregina izango da batez ere. Euskara biziberritzeko, beharrezkoa da norbanakoan, gizartearen eta administrazioen arteko ahaleginak uztartzea eta elkar elikatzea.

Euskararen Agenda Estrategikoa 2013-2016

Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak *Euskararen Agenda Estrategikoa 2013-2016* onartu zuen 2014ko ekainaren 24ko batzarrean, eta egun horretan bertan, Lehendakaria buru eta Gobernu osoa bertan zela, euskal gizarteari aurkeztu zitzaion.

Agendan zehaztutako edukiak garatzeko kudeaketa plana egin zen, eta ondoren, horren jarraipena eta ebaluazioa (dokumentu argitaratu gabea). Agendaren ibilbidea honela laburbil daiteke:

- 2014an Batzorde Eragileak 2014ko kudeaketa plana onartu zuen.
- 2015eko urte hasieran Batzorde Eragileak zein Jarraipen Batzorde Orokorrak ontzat eman zituzten 2014ko kudeaketa planaren jarraipen txostena eta 2015eko kudeaketa plana.
- 2016ko urte hasieran Batzorde Eragileak zein Jarraipen Batzorde Orokorrak ontzat eman zituzten 2015eko kudeaketa planaren jarraipen txostena eta 2016ko kudeaketa plana.

Ebaluazio kuantitatibo orokorra egiteko 2014, 2015 eta 2016 urteetako kudeaketa planek eta jarraipen txostenek erakutsitako datuak bateratu ziren. Horrenbestez, Agendan jasotako 168 ekintza guztietatik, 2014an 133 gauzatzea aurreikusi zen; 2015 eta 2016 urteetan, berriz, ekintza guztiak gauzatzea aurreikusi zen. Horrekin batera, ekintza horiek garatu ahal izateko, zeregin batzuk proposatu ziren. Aurreikuspen horien betetze mailari dagokionez, 2014an aurreikusitako 133 ekintzetatik 126 gauzatu ziren; 7 ekintza ez ziren bete. 2015 eta 2016 urteetan, aurreikusitako 168 ekintzetatik 146 gauzatu ziren; 22 ekintza ez ziren bete.

Hortaz, datu guztiak aurrean izanda, betetze mailaren inguruan esan genezake 2014 eta 2015 urteetako aurreikuspenak hobetu egin zirela, % 75 eta % 86,90, hurrenez hurren; 2016an ez zen lortu aurreikusitako ehuneko (% 90), eta aurreko urteko ehuneko bera bete zen (% 86,90). Hona hemen datuak taula batean bateratuta:

URTEA	AURREIKUSITAKO EKINTZAK	AURREIKUSITAKO ZEREGINAK	AURREIKUSITAKO BETETZE MAILA	EKINTZAK		ZEREGINAK		BETETZE MAILA
				BETE BAI	BETE EZ	BETE BAI	BETE EZ	
2014	133	191	% 60	126	7	184	7	% 75,00
2015	168	285	% 75	146	22	255	30	% 86,90
2016	168	269	> % 90	146	22	238	31	% 86,90

Ebaluazio kualitatiboari dagokionez, gauzatutako zeregin nagusien nolakotasuna hartu behar dugu kontuan. Horrela, 2014, 2015 eta 2016 urteetan, Eusko Jaurlaritzak era honetako zereginak gauzatu zituen: *deialdiak* egin zituen euskara-ikastaroak antolatzeko, euskarazko hedabideak sendotzeko, lantokietan zein zerbitzuetan euskara gero eta gehiago erabiltzeko, IKTetan euskara sustatzeko...; *diru-laguntzak* eman zizkien euskara bultzatzen duten elkarteei beren jardunean laguntzeko; *hitzarmenak* sinatu zituen euskal hiztun komunitatearen hizkuntza gaitasuna bultzatu eta hizkuntza eskubideak babesteko, beste eragile batzuekin elkarlanean; *i(ra)kasmaterialak* prestatu zituen, nork bere kasa edo tutorearekin, euskara ikasteko eta irakasteko, betiere *Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum (HEOC)* berria eta *Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua* gogoan hartuta; *txostenak (argitalpenak)* kaleratu zituen euskararen egoeraren berri emateko. Horiez gain, euskararekiko atxikimendua sendotzeko bidean, “Poziktibity” proiektua eta “Euskararen txantxangorria” irudia zabaldu zituen euskara erabiltzearen aldeko jarrera eta sentsibilizazioa lantzeko. Amaitzeko, ezin aipatu gabe utzi eragileen arteko lankidetzak sustatzeko, arlo batzuk lantzeko, prozedurak adosteko... egindako bilerak eta azterketak.

Garatzeko aurreikusita egon arren, bete gabe geratu ziren ekintza eta zeregin batzuk, gehienak arlo batzuetako azterketak eta eragile batzuekin egin beharreko bilerei lotutakoak. Horiek ez betetzeko arrazoi nagusia denbora falta izan zen; egiteko batzuei lehentasuna eman zitzaenez, beste batzuk ezin izan ziren bete. Horrek guztiak erakutsi zuen eragileen arteko koordinazioa sendotzeko tarte dagoela oraindik ere.

VI. Inkesta Soziolinguistikoa: Euskal Autonomia Erkidegoa

VI. Inkesta Soziolinguistikoa berretsi egiten du hazkunde baten kronika dela euskararena. Azken 25 urteotako bilakaerari dagokionez, 2016an 1991n baino 212.000 euskaldun gehiago daude EAEn 16 urte edo gehiagoko herritarren artean: ia 10 puntuko hazkundea izan dute adin-tarte horretako euskaldunek ehunekoetan (% 24,1 vs. % 33,9). Hazkunde hori, gainera, jarraitua izan da.

Aurreko inkestetako joera berretsi ez ezik areagotu egin da azken inkestan. Orain arte ez bezala, 2016an, nagusien multzoan –65 urte edo gehiagoko multzoan– baino handiagoa da euskaldunen portzentajea helduen artean –50-64 urteko adin-tartean– (% 22,4 vs. % 24,6). Lehenengo aldiz gertatu da hori.

Duela 20 urtera arte, euskaldunen ehunekorik handiena nagusien multzoan zegoen, alde handiarekin gainera (8,5 puntuko aldea). Orduetik, baina, behera egin du euskaldunen ehunekoak adin nagusikoen artean, eta askoz proportzio altuagoan egin du gora gazteen artean. Ondorioz, gaur egun, kontrakoa gertatzen da; hau da, nagusien artean dago euskaldunen ehunekorik txikiena eta erdaldunen ehunekorik handiena. Orduan, gazte gutxiren hizkuntza zen euskara; gaur, berriz, gero eta gazte gehiagorena da. Izan ere, 16-24 urte bitarteko gazte euskaldunen ehunekoak 46 puntu egin du gora azken 25 urteotan (% 25 vs. % 71,4).

Nabarmenezkoa da, baita ere, euskara soilik ez ezik euskara eta erdara transmititu dutenen hazkundea: 16-24 urte bitarteko gazteen artean % 3,4 izatetik % 11,1 izatera igo da 25 urteotan.

Bilakaera horrek agerian jartzen ditu hiru gertakari: batetik, euskararen familia bidezko transmisioak etengabe hobera egin duela 25 urteotan; bestetik, asko ugartu direla familia linguistikoki mistoak; eta, azkenik, guraso euskaldun berriek ere proportzio altuan euskara transmititzen dutela etxean.

Ikerkuntza soziolinguistikoak argi erakusten duenez, elebidunak –eta hala dira euskaldun guztiak– erabiliko duen hizkuntza aukeratzekoan, eragin handia du ezagutzen dituen hizkuntzetan duen erraztasunak. Gaur egun, euskaldunen % 26,8 hobeto moldatzen da euskaraz erdaraz baino. Gehiago dira bi hizkuntzetan berdín moldatzen direnak (% 29,3), eta are gehiago erdaraz hobeto moldatzen direnak (% 44). Azpimarratzekoa da euskaldunen ezaugarri soziolinguistikoak asko aldatu direla azken 25 urteotan. 1991n euskaldun gehienak euskaldun zaharrak (% 79) ziren, hau da, etxean jaso zuten euskara. Euskaldun zaharrak, gainera, nagusi ziren adin-talde guztietan. 2016an, aldiz, euskaldun zaharrek oro har nagusi izaten jarraitzen badute ere, jatorrizko elebidunek pisu handia hartu dute, eta are handiagoa euskaldun berriek, batez ere 35 urtetik beherakoen artean.

Azpimarratu behar da, edonola ere, azken 25 urteotan elebidun orekatuek izan duten bilakaera. Apurka-apurka bada ere, eta 10 urteko perspektiban, gora egiten ari da euskaraz eta erdaraz berdín moldatzen direnen ehunekoak.

Erabilerari dagokionez, alde handiak daude lurralde batetik bestera. Lurraldeen artean dauden alde horiek oso nabarmenak dira baita gune soziolinguistikoaren artean ere. Euskaldunen ehunekoak zenbat eta altuagoa izan gune batean, orduan eta handiagoa da euskararen erabilera.

Nolanahi ere, euskararen erabilerak gora egin du apurka-apurka EAEko hiru lurraldeetan eta lehenengo, bigarren eta hirugarren gune soziolinguistikoetan. Laugarren gunean, aldiz, behera egin du euskara erabiltzen dutenen

portzentajeak. Beherakada hori azken ia bi hamarkadetan izan diren biztanleen mugimenduen ondorioa da nagusiki, laugarren gunera bizitzera joan diren pertsonen euskararen ezagutza lehendik bertan bizi edota bertatik atera direnena baino apalagoa baita gehienetan.

Bukatzeko, euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera hazi egin da azken 25 urteotan, bereziki azken 5 urteotan. Aurkako jarrerren jaitzierarik handiena ere azken 5 urteotan gertatu da. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerak lotura handia du hizkuntza gaitasunarekin. Izan ere, euskararen erabilera sustatzearen alde azaltzen da euskaldunen % 87,1, euskaldun hartzaileen % 63,4 eta erdaldunen % 49,7.

Datu horien argitara, erronka nagusietarikoa da euskararen erabileraren legitimitatea gizarte osoan zabaltzea eta euskararekiko atxikimendua gizarte osoan sendotzea, ez bakarrik euskaldunen –are gutxiago euskaltzaileen– artean, euskararen auzia ez baita euskaldunena bakarrik, euskal herritar guztien arteko elkarbizitzari zuzenean loturiko auzia baizik.

Hizkuntzen Erabileraren VII. Kale-neurketa

Kale-neurketan Euskal Herriko kaleetan entzuten den hizkuntza-erabilera behatzen da. Gaur egun, Gipuzkoan jaso da euskararen kale-erabilera mailarik altuena, % 31; Bizkaian ia % 9ko erabilera behatu da; eta azkenik, euskara gutxien erabiltzen den lurraldea Araba da, ia % 5.

Hiru lurraldeek ez dute bilakaera bera izan 27 urte hauetan. Arabako erabilera egonkorra izan zen 2011ra arte, eta nabarmentzekoa da azken 5 urteetan gora egin izana. Gipuzkoan, neurketaz neurketa, euskararen erabilerak etengabe gora egin du; azken 5 urteetan, ordea, atzera egin du. Bizkaian erabilerak 1997ra arte gora egin eta, 1997-2006 urte bitartean bere horretan mantendu ostean, azken 10 urteetan behera egin du.

Adinari dagokionez, zenbat eta gazteago, orduan eta gehiago erabiltzen da euskara: haurrek hitz egiten dute euskaraz gehien, gazteek ondoren, helduek eta, azkenik, adinekoek. 1989an bestelakoa zen egoera: haurrak ziren euskara gehien erabiltzen zutenak, jarraian adinekoak eta helduak zeuden, eta azken postuan, gazteak.

27 urteko bilakaeran (1989tik 2016ra) haurren, gazteen eta helduen erabilerak gora egin du; adinekoen erabilerak, berriz, etengabeko beherakada izan du. Dena den, azken 10 urteotan adin-talde guztietan atzerakada gertatu

da. Adinaren eta sexuaren aldagaiak gurutzatuz gero, emakumezkoek gizonezkoek baino euskara gehiago darabilte adin-talde guztietan, adinekoetan izan ezik.

Haurrak eta nagusiak talde berean daudenean jasotzen dira euskararen kale-erabilerarik altuenak, eta jarraian, haurrak bakarrik daudenean. Salbuespena Arabako kasua da: hurren arteko (nagusirik gabe) zein nagusien arteko (haurrik gabe) erabilerak maila bera adierazi dute 2016an. Bilakaerak aztertuz, azken 10 urteetan, hurrek osatutako solaskide-taldeen euskararen erabileran jaitsiera izan da, nagusien arteko (haurrik gabe) zein hurrez eta nagusiez osatutako elkarrizketetako euskararen erabilerak, berriz, ez dute gorabehera esanguratsurik izan.

4 / JARDUN-EREMUA, ESKUMEN-ALORRA ETA ESPARRU JURIDIKOA

Euskara hizkuntza ofiziala da Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako eremu euskaldunetan; Iparraldean (Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoa), aldiz, ez.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartu zen. Estatutuaren 6. artikuluan –1978ko Konstituzioaren 3. artikulua babesean– Euskal Herriko berezko hizkuntza den euskarari hizkuntza ofizialaren izaera aitortzen zaio, gaztelaniarekin batera; beraz, herritar guztiek bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea dute. Horrela, EAeko erakundeek bi hizkuntzen erabilera bermatuko dute, haien izaera ofiziala arautuz, eta neurriak hartuko dituzte bien ezagutza bermatzeko, beti ere lurraldeko egoera soziolinguistikoaren ñabardurak kontuan hartuta.

Euskararen erabilera arautzen duen 10/1982 oinarrizko Legearen arabera, euskal herritar guztiek dute hizkuntza ofizial biak hitzez nahiz idatziz ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea. Eskubide horiek eraginkorrak eta benetakoak izan daitezen, herri-aginte sailek horien erabilera bermatuko dute.

Hori guztia garatzeko, *Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP)* eta honako erabilera plan hauek hartu dira aintzat, guztiak ere *Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020* dokumentuaren osagai direnak.

- Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusia
- Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana
- EAeko Justizia Administrazioan Hizkuntza Normalizatzeko Plan Orokorra
- Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana
- EITBko Euskararen Erabilerarako Plana

24/2016 Dekretua, azaroaren 26koa, Lehendakariarena, EAeko Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen kontuan hartzen badugu, 14. artikulua Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari honako egiteko eta jardun-arlo hauek esleitzen dizkio, besteak beste: hizkuntza-politika eta euskara sustatzea.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 82/2017 Dekretuak sail horren egitekoak eta jardun-arloak ezartzen ditu.

5/ HELBURU ESTRATEGIKOAK

Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020 honetan berretsi egin dira Euskadi 2020 Gobernu Programan ezarritako konpromisoak eta ekimenak, eta ekintzak zehaztu dira.

Euskararen bilakaera soziolinguistikoaren adierazle nagusietan aurrerapenak egiten jarraitzea izango da eginkizun nagusia, eta egiteko horiek gauzatzeko jarri diren helburu estrategikoak hauek dira:

1. Euskal herritarren euskara-gaitasuna ugaritzea.
 - 1.1.25 urtetik beherakoen % 75 euskal hiztun izatea.
 - 1.2.Hiztun berrien kopurua handitzea.
 - 1.3.Herritarrek euskara ziurtagiriak lortzeko sistema hobetzea.
2. Euskal herritarren euskararen transmisioa ugaritzea.
 - 2.1.Etxean.
 - 2.2.Etxetik kanpo.
3. Euskal herritarren euskararen erabilera handitzea eta kalitatea hobetzea.
 - 3.1.Etxean eta lagunartean.
 - 3.2.Hezkuntza arautuan eta ez arautuan.
 - 3.3.Lan munduan.
 - 3.4.Aisialdi-arloan: ingurune digitala, kirola, kultura, hedabideak...
4. Erakunde publikoen eta pribatuen euskararen erabilera handitzea.
 - 4.1.Euskara, gaztelaniarekin batera, zerbitzu eta lan hizkuntza izatea administrazioan.
 - 4.2.Euskara, gaztelaniarekin batera, zerbitzu eta lan hizkuntza izatea Eusko Jaurlaritzaren mendeko sozietate publikoetan.

- 4.3. Euskara, gaztelaniarekin batera, zerbitzu eta lan hizkuntza izatea lan munduan.
- 5. Herritarren hizkuntza eskubideen babesa bermatzea.
 - 5.1. Konponbidea izan duten Elebideko intzidentzia kopurua ugaritzea.
 - 5.2. Herritarren hizkuntza eskubideen kontzientzia maila igotzea.
- 6. Euskara biziberritzeko ezagutzaren garapenean (ikerkuntza) eta berrikuntzan (aplikazioa) sakontzea.
 - 6.1. Euskararen corpora garatzea: hiztegiak, Euskalterm...
 - 6.2. Euskararen azterketa soziolinguistikoa egitea: ikerketa kuantitatiboak (adierazle sistema eta datutegiak) eta kualitatiboak.
 - 6.3. Arnasguneei eta eremu funtzionalei buruzko azterketak ugaritzea.
- 7. Hizkuntza bizikidetzan oinarritzen den gizarte aktibazioa indartzea.
 - 7.1. Euskararen eta hizkuntza politikaren inguruko adostasuna lortzea.
 - 7.2. Euskararen unibertsoa eta bizipena gizarte osoan duintzea.
 - 7.3. Hizkuntza bizikidetzarako portaera berritzaileak sustatzea.
 - 7.4. Euskararekiko atxikimendua eta hizkuntzen arteko harremanak sendotzea.
- 8. Euskararen lurraldea osatzen dugun eragile publikoekin eta pribatuekin lankidetzan berriro eta ugaritzea.
- 9. Euskararen nazioartekotzeari eta eleaniztasunaren aldeko konpromisoari jarraipena egiteko ekintza kopurua ugaritzea.

Gobernu Programan zehaztutako konpromisoak eta atal honetan jasotako helburu estrategikoak lotuta daude. Horrenbestez, lehenengo konpromisoak bat egiten du 1. eta 2. helburuekin. Dena den, 2. helburu hori bigarren konpromisoari lotuta ere badago, 3. helburuarekin batera. Hirugarren konpromisoak 4., 5. eta 6. helburuak batzen ditu. Laugarren konpromisoak 7., 8. eta 9. helburuak hartzen ditu bere baitan. Azkenik, laugarren konpromiso horrek lotura zuzena du Etxepare Euskal Institutuaren bosgarren konpromisoarekin.

6 / GAUZATU BEHARREKO EKINTZAK ETA JARDUERAK

Eusko Jaurlaritzaren *Euskadi 2020 Gobernu Programak*, legealdi honen hasieran onartutakoak, hizkuntza politikari bere zeharkako izaera aitortzen dio eta gobernu jardunaren ardatzetako bat bihurtzen du, hizkuntza bizikidetzaz gizarte bizikidetzaren zati banaezintzat hartuz.

Ildo horretatik, *Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020* dokumentuak kontuan hartu eta osagai ditu normalizazio plan hauek: Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusia (V. plangintzaldia (2013-2017) eta VI. plangintzaldia (2018-2022)), Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana (2013-2019), EAEko Justizia Administrazioan Hizkuntza Normalizatzeko Plan Orokorra (2011-2020), Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana eta EITBko Euskararen Erabilerarako Plana.

Plan horiez gain, kontuan hartu beharrekoa da Hizkuntza Politika Sailburuordetzak Etxepare Euskal Institutuarekin izango duen harremana. Etxepare Euskal Institutuak euskal kulturaren eta euskararen nazioarteko proiektzioa sustatzea izango du xedeetako bat, eta xede horretan aurrera egiteko lankidetzaz bultzatuko denez, Agenda honetan jarri diren lau konpromisoez gain, bosgarren konpromisoa atxiki zaio.

Hala, Gobernu Programan zehaztutako konpromisoak eta ekimenak garatuko dira Hizkuntza Politikarako sailburuordearen gidaritzapean dauden hiru zuzendaritzek eta HABE erakunde autonomoak bideratuta. Arduraduna ekimen bakoitzaren ondoan zehaztu da sigla hauen bidez:

- HAHNZ (Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza)
- ESZ (Euskara Sustatzeko Zuzendaritza)
- HIKZ (Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza)
- HABE (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea)

1. KONPROMISOA EUSKARAREN GIZARTE-HAZKUNDEA FINKATU, EUSKAL HIZTUNEN KOPURUA HANDITUZ ETA HAIEN HIZKUNTZA GAITASUNA HOBETUZ.	
1.1. ekimena	Helduen euskalduntzea sustatu eta babestu. (HABE)
1.1.1. azpi-eki.	Euskaltegietako irakasleen prestakuntza bultzatu.
1.1.2. azpi-eki.	HEOCaren araberako ikasmaterialak sortu aurrez aurreko, jardun biko eta tutoretzadun autoikaskuntza ikastereduetarako.
1.1.3. azpi-eki.	Helduen euskalduntzea bultzatzeko beste erakunde batzuekin lankidetzan sustatu.
1.1.4. azpi-eki.	40 urtetik goragoko herritar helduek oinarritzko euskara uler dezaten (gaitasun pasiboa) neurriak hartu.
1.2. ekimena	Helduen euskalduntzea kudeatzeko sistema bakar bat bultzatu, HABEren koordinazioaren pean, zeinak euskararen irakaskuntza sustatzeari lotutako kontu guztiak hartuko baititu kontuan. (HABE)
1.2.1. azpi-eki.	Helduak euskalduntzeko eraketa-modu eta finantziazio-sistema egonkor eta iraunkorra ezarri; euskaltegien sarea oinarri, euskaltegien eskumen akademikoak garatu –ziurtagiriak ematekoa barne– eta ikastaro eskaintza zabaldu.
1.3. ekimena	Helduek B2 maila lortu arte euskara-ikaskuntza doakoa izateko prozesua amaitu. Ikasketa horiek doakoak izateko, aurreikusitako maila akademikoak gainditu beharko dira. (HABE)
1.3.1. azpi-eki.	Helduek euskara gutxieneko maila bateraino ikastea doakoa izatera hurbildu.
1.4. ekimena	Tituluak lortzeko sistema hobetu, euskaraz hitz egiten duten pertsonen kopurua handitzeko eta pertsona horiek ahalduz. (HABE)
1.4.1. azpi-eki.	Ziurtagiriak emateko sistema berria ezarri, herritar guztientzako deialdi irekiak ere antolatuz.

2. KONPROMISOA
AISIALDIAN ETA FORMALAK EZ DIREN EREMU FUNTZIONALETAN ZABALDU EUSKARAREN ERABILPENA.

2.1. ekimena	Euskararen erabilpena aisialdian sustatu. (ESZ / HAHNZ)
2.1.1. azpi-eki.	Instituzioen artean, eta erakunde publikoen zein pribatuen artean, lankidetzaz plangintza iraunkorra landu eta martxan jarri haurrentzako eta gazteentzako euskarazko aisialdi jarduerak bermatzeko; ludoteketan, gaztetxokoetan, udalekuetan, eskolaz kanpoko jardueretan...
2.1.2. azpi-eki.	Eskumeneko erakunde publikoen eta pribatuen arteko ekintza koordinatu bat sustatu haurrentzako eta gazteentzako jardueretan euskara eskaini ahal izatea bermatzeko; kirol federatua eta ez federatua, heziketa jarduera osagarrietan, musika eskoletan... era guztietako kultur jardueretan.
2.1.3. azpi-eki.	Instituzioen artean, eta erakunde publikoen zein pribatuen artean, lankidetzaz eta ikerketa plangintza iraunkorra landu eta martxan jarri euskararen transmisioa sustatu eta ugartzeko.
2.2. ekimena	Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020 bultzatu. (HIKZ)
2.2.1. azpi-eki.	Euskararen Agenda Estrategikoaren kudeaketa plana prestatu, eta jarraipena eta ebaluazioa egin.
2.2.2. azpi-eki.	Euskararen Adierazle Sistema eratzea bideratu eta sustatu euskararen eremuko erakundeekin lankidetzan.
2.2.3. azpi-eki.	Euskararen bilakaera eta errealitate soziolinguistikoa erakusteko ikerketak bultzatu eta zabaldu.
2.2.4. azpi-eki.	Azterketa zientifikoak abiapuntu dituzten gogoeta eta praktika onak bultzatu eta zabaldu.
2.2.5. azpi-eki.	Euskararen biziberritze prozesuaren eragileak identifikatu eta aktibatzen aldagaiak aztertu, eta horiek praktikan jartzeko ikerketak sustatu.
2.3. ekimena	Interneten eta tresna digitaletan euskarazko edukiak sortzea eta sartzeko bultzatu, unibertsitateekin, eta hezkuntza-, kultura-, eta aisialdi-arloko edukiak sortzen dituzten erakundeekin eta pertsonekin lankidetzan. (ESZ / HIKZ)
2.3.1. azpi-eki.	Hezkuntza-, kultura- eta aisialdi-arloko edukiak sortzen dituzten eragileekin elkarlanean aritu.
2.3.2. azpi-eki.	Euskarazko bideojokoen alorra sustatu.
2.3.3. azpi-eki.	Hizkuntza teknologiaz euskaraz garatzen lagundu eta hedatu.
2.3.4. azpi-eki.	“.eus” domeinuaren erabilera hedatzeko neurriak hartu.
2.3.5. azpi-eki.	Euskarazko Wikipedia sustatu.
2.3.6. azpi-eki.	Ingurune digitaletan euskarazko edukiak sortzea eta hedatzea sustatu, bereziki ikus-entzunezkoak. Edukiotan lizentzia libreak sustatu.
2.3.7. azpi-eki.	Ingurune digitaletan euskarazko erabilerari eta eskaintzari lotutako datuak bildu.
2.3.8. azpi-eki.	Ingurune digitaletan berrikuntzen identifikazioa eta jarraipena egin, bereziki hizkuntzaren erabileran eta sustapenean eragina izan dezaketena.

2. KONPROMISOA
AISIALDIAN ETA FORMALAK EZ DIREN EREMU FUNTZIONALETAN ZABALDU EUSKARAREN ERABILPENA.

2.4. ekimena	Komunikabideetan eta ekintza kulturaletan euskararen erabilpena sustatu, eta, aldi berean, haren erakargarritasuna eta prestigio soziala indartu. (ESZ / HIKZ)
2.4.1. azpi-eki.	Euskarazko komunikabideen kontsumoa sustatu; komunikabide guztietan euskararen presentzia eta erabilera indartu, bereziki on-line argitaratutakoena.
2.4.2. azpi-eki.	Euskarazko produktu kulturalen kontsumoa sustatu.
2.4.3. azpi-eki.	Gazteen euskarazko aisialdi programak lehenetsi; aisialdi-arloko eta gazteentzako euskarazko produktuen, ekitaldien eta zerbitzuen eskaintza indartu.
2.4.4. azpi-eki.	Belaunaldien arteko euskararen transmisioa suspertzeko xedez, beren hizkuntza ohiturek seme-alaben euskararekiko jarreran nolako eragina duten jabetu daitezen, gurasoen kontzientziazioa sustatu; halaber, guraso euskaldun berrientzako sentsibilizazio ekintzak gauzatu, bikote euskaldunen zein mistoen artean.
2.4.5. azpi-eki.	Hizkuntza eta kultura aniztasuna bultzatu, elkarren arteko errespetua sustatuz, gure gizartean integratzeko bitartekari gisa.

3. KONPROMISOA
ERAGINKORTASUNEZ EGIN AURRERA, HERRITARREN HIZKUNTZA ESKUBIDEAK EREMU PUBLIKOAN ETA PRIVATUAN
GAUZATZE ALDERA

3.1. ekimena	Herritarrek hizkuntza eskubideak baliatzeko orduan aurrera egin. (HAHNZ / HIKZ)
3.1.1. azpi-eki.	EAEko Administrazio Orokorrean, eta haren erakunde eta sozietateetan, herritarren hizkuntza eskubideen erabilera eraginkorra ahalbidetuko duten baldintzak sustatu.
3.1.2. azpi-eki.	EAEko Administrazio Orokorreko arreta zuzeneko zerbitzuetan herritarrentzako arreta elebiduna bermatu.
3.1.3. azpi-eki.	Langile publikoak euskaraz gaitzeari bultzada eman, bereziki Osakidetzan, Justizian eta Ertzaintzan.
3.1.4. azpi-eki.	Elebide hizkuntza eskubideak bermatzeko zerbitzuaren ekimena indartu; Arartekoarekiko lankidetzari indartu eta zerbitzua erakundeen artean bultzatu.
3.1.5. azpi-eki.	Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak babesteko neurriak hartu; kontsumitzaileen eta erabiltzaileen dekretuaren eraginpeko enpresa pribatuekin harremanak eta lankidetzari indartu.
3.1.6. azpi-eki.	Lan munduan euskararen erabilera –zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza izan dadin– sustatu eta areagotu.
3.1.7. azpi-eki.	Arlo sozioekonomikoan, erakunde publikoetan eta pribatuetan, euskararen erabilera eta kudeaketa egiaztatzeko BIKAIN sustatu.
3.2. ekimena	Nagusiki euskara erabiltzen duten geografia-eremuak indartu. (HAHNZ / HIKZ)
3.2.1. azpi-eki.	Euskaldunen dentsitate handiagoa duten udalerrietan zerbitzu publikoak normaltasun osoz euskaraz erabili ahal izateari eragin, betiere herritar guztien hizkuntza eskubideak errespetatuz.
3.2.2. azpi-eki.	Euskaldunen dentsitate handiagoa duten udalerrietan lan-, merkataritza- eta aisialdi-arloan erabilera planak sustatu.
3.2.3. azpi-eki.	Hiztunen borondateari jarraiki, eta beren arteko akordioa sustatuz, gune soziofuntzionalak indartu eta hedatu, non euskara izango baita hizkuntza nagusia euskaldunen dentsitate ezberdineko eremuetan.
3.3. ekimena	Zerbitzu publikoetan arreta elebiduna ematen jarraitu, eta Euskararen Erabilera VI Plana (2018-2022) bultzatu Eusko Jaurlaritzan. (HAHNZ)
3.3.1. azpi-eki.	Hizkuntza eskakizunak berriro diseinatu eta gaurkotu lanpostuen komunikazio zehaztasunei erantzun ahal izateko. Komunikazio gaitasuna zehazteko, hizkuntza trebezien araberako esparruak ezarri.
3.3.2. azpi-eki.	Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko modalitate berriak aztertu; esaterako, lan eginkizunei edo euskarazko lanpostuei lotutakoak.
3.3.3. azpi-eki.	86/1997 Dekretua egokitu, hizkuntza eskakizunen inguruko berrikuntzak eska dezakeen araudi aldaketarako bidea jorratzeko.
3.3.4. azpi-eki.	Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusia garatu.
3.3.5. azpi-eki.	Erabilera plan eredu bat sortu eta zabaltu herri administrazioetan, enpresa publikoetan eta pribatuetan erabiltzeko modukoa.
3.3.6. azpi-eki.	Euskararen erabilera bultzatu zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan.

3. KONPROMISOA
ERAGINKORTASUNEZ EGIN AURRERA, HERRITARREN HIZKUNTZA ESKUBIDEAK EREMU PUBLIKOAN ETA PRIVATUAN
GAUZATZE ALDERA

3.3.7. azpi-eki.	Administrazioan euskara, gaztelaniarekin batera, lan hizkuntza gisa erabil dadin aurrera egin.
3.3.8. azpi-eki.	Izaera orokorreko xedapenak kudeatzeko, dagokion hizkuntza-txostena indartu eta legeria sektorialean hizkuntzaren gaia arautzeko bermeak eskaini.
3.3.9. azpi-eki.	EAEko Administrazio Orokorreko goi-karguek eta bere mendeko organoetako izendapenezko karguek euskara ondo jakin dezaten tresnak eskaini, azken urteotan egindako lanari jarraipena emanez.
3.3.10. azpi-eki.	Hizkuntza kudeaketan BIKAIN ziurtagiriaren ezaugarriak egokitu herri administrazioetara hedatzeko.
3.4. ekimena	Euskararen corpusaren garapena areagotu eta haren adierazteko gaitasuna aberastu, gazteen eta hitzun berrien premiei erantzuteko. (ESZ / HIKZ)
3.4.1. azpi-eki.	Euskararen corpusa garatu eta berritu; arlo ezberdinetako hitzunen egungo euskararen erabilerak bildu eta egiaztatatu.
3.4.2. azpi-eki.	Euskarazko komunikazio estandarrak malgutu eta aberastu; bigarren hizkuntza gisa euskaraz erdietsitako gaitasunak balioztatu, zuzen jardutea irizpide bakartzat hartu gabe.
3.4.3. azpi-eki.	Kontsulta eta erreferentzia tresna berriak garatu (eskuliburuak, hiztegiak, terminologia glosarioak...).
3.4.4. azpi-eki.	Gazteen hizkuntzak inspirazio iturri dituzten edukiak sortu, gazteen adierazteko beharrianei erantzunez.
3.4.5. azpi-eki.	Erregistro arruntetan eta informaletan erabilitako hizkuntza baliabide berriak bildu, landu eta hedatu, euskararen bizitasuna, adierazgarritasuna eta zehaztasuna aberasteko.
3.4.6. azpi-eki.	Administrazioko idazkiak estandarizatu, eta eredu horiek administrazioen artean zabaldu.
3.4.7. azpi-eki.	EAEko toponimia estandarizatzeko eta biltzeko urratsak eman, eta toponimia ofizialaren erabilera sustatzeko neurriak hartu.
3.4.8. azpi-eki.	Eusko Jaurlaritzako Itzulpen Memorien Banku Publikoa martxan jartzen lagundu.
3.4.9. azpi-eki.	Zinpeko itzultzaileen eta interpreteen habilitazioari buruzko 88/2009 Dekretua aztertu eta, beharrezkoa bada, egokitu.

4. KONPROMISOA

EUSKARAREN HIRU LURRALDEEN ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA ANTOLATU ETA INDARTU, ETA EUSKARAREN NAZIOARTEKO AITORMENA BULTZATU.

4.1. ekimena	Nafarroako Gobernuaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren (EEP) arteko lankidetza indartu. (HIKZ)
4.1.1. azpi-eki.	Nafarroako Gobernuarekin eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoarekin euskara sustatzeko garatutako lankidetza indartu.
4.1.2. azpi-eki.	Berezko hizkuntza aintzat hartuta duten beste autonomia erkidego batzuekin lankidetza sustatu.
4.1.3. azpi-eki.	Estatuko instituzioek babestu beharreko balio gisa, eraginkortasunez eleaniztasunaren alde egin dezaten sustatu, Eusko Jaurlaritza, Kataluniako Generalitat, Galiziako Xunta eta Balear Uharteetako Gobernuaren artean indarrean dagoen akordioak ezarritakoaren arabera, eta "España plurilingüe: manifiesto por el reconocimiento y el desarrollo de la pluralidad lingüística de España" manifestuaren ildoan.
4.2. ekimena	Euskararen eta hizkuntza bizikidetzaren inguruan ahalik eta adostasun sozial eta politiko handiena lortu eta indartu (HIKZ / ESZ)
4.2.1. azpi-eki.	Euskal gizartearen sentsibilitate ezberdinek bere egin dezaketen mezu adostua etengabe gaurkotu.
4.2.2. azpi-eki.	Euskararen Aholku Batzordearen ekintza sendotu, esparru instituzionalaren eta sozialaren arteko topagune eta lankidetza organo goren gisa, hizkuntza politikaren arloan jarduteko ildoak eztabaidatu, adostu eta partekatzeko xedez.
4.2.3. azpi-eki.	Gizarte eragile ezberdinen inplikazio aktiboa eragin, euskararen erabilera hedatzearen aldeko gizarte pedagogia garatzeko, hizkuntza aniztasun aberasgarria gordetzeko beharrezko baldintza legez.
4.2.4. azpi-eki.	Europar Batasuneko erakundeek Europako eleaniztasuna bere egin dezaten sustatu, hizkuntza aniztasuna garatzeko hizkuntza politika eraginkorra izan dezan Europak; hizkuntza aniztasuna sustatzen duten sareetan parte hartu.
4.2.5. azpi-eki.	Euskararen errealitate eta biziberritze prozesuaren berri eman nazioartean; kongresu, mintegi eta sinposioetan parte hartu.
4.2.6. azpi-eki.	Nazioartean hizkuntzen arteko lankidetza sustatu; Gobernuaren kooperaziorako parte-hartze programetan eta diru-laguntzetan irizpide hori gehitu.
4.2.7. azpi-eki.	Hizkuntza eta kultur aniztasunari buruzko ikerketa eta garapen prozesuak bultzatu, hizkuntza gutxituen ikuspegitik.

Esan bezala, Etxepare Euskal Intintuaren konpromisoa ere gogoan hartu behar da.

5. KONPROMISOA EUSKAL KULTURAREN ETA EUSKARAREN NAZIOARTEKO PROIEKZIOA SUSTATU, ETXEPARE INSTITUTUAREN BIDEZ.	
5.1. ekimena	Etxepare Institutuaren rola indartu, Euskadiren esanetara dagoen kultura-arloko diplomaziazko tresna gisa. (ESZ)
5.2. ekimena	Kanpoan euskararen irakaskuntza sustatu, irakurlegoen bidez, euskararen eta euskal kulturaren katedren eta Euskara Munduan programaren bidez. (HABE)
5.3. ekimena	Euskadiko sektore kulturelekiko koordinazioa bultzatu, haren presentzia nazioartean sustatze aldera. (ESZ)

7 / GOBERNANTZA, KUDEAKETA EREDUA ETA JARRAIPEN-EBALUAZIO SISTEMA

“Gobernuaren eta konfiantzaren arteko batura dela diote Gobernantza.
Gizarte baten funtzionatzeko modu bat”

PABLO CHIRIF

Behin eta berriro adierazi den moduan, *Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020* dokumentuak *Euskadi 2020 Gobernu Programa* garatzen du. Uste dugu euskaratik abiatzen den hizkuntza politika garatuz ekarpena egin ahal dugula bizikidetzarako giza eta kultur garapenean, baita integraziorako eta berdintasun soziala lortzeko bidean ere. Euskararen errealitatetik –hizkuntza gutxitua da– begira jarrita irekitzen zaizkigu hizkuntzen arteko bizikidetzak jorratu eta berdintasunean sakontzeko aukera berriak.

Euskarak Eusko Jaurlaritzaren eta gizartearen agerlekuan izan beharko lukeen tokia birplanteatzera eta hizkuntza bizikidetzak emankorra lortzeko giltzak aztertzea gonbidatzen gaitu honek guztiak; eta bide batez, euskararen zeharlerrotasuna aldarrikatzen. Euskara –hizkuntza gutxitua– gizartearen eremu guztietan ageriko jartzeak esan nahi du eremu jakin baten ardura izatetik guztion ardura izateko jauzia ematea nahi dugula; genero berdintasunean egin diren aurrerapenak, hizkuntza (euskara) berdintasunean ere egitea; hizkuntzen arteko harreman osasungarriak lortzeko aukera berriak proposatu eta erakunde publikoak nahiz gizarte eragileak jomuga horri begira lanean jartzea.

Hizkuntza gutxitua agerikoago jartzeak esan nahi du hizkuntzaren ezagutzan ez ezik, haren erabilera nahi dela begirada jarri. Are indartsuago garai honetan, non euskararen ezagutzak igoera nabarmena izan duen, gizarte aldaketa handia gertatu den eta erabilera ohitura askotarikoak ditugun, askoren artean.

Hartan, ezinbesteko dugu elkarrizketan eta elkarlanean oinarritzen den gobernantza; erakunde publikoek eta gizarte eragileek elkarrekin lan egitea adostuak diren helburuak lortzeko, baita instituzioen arteko elkarlana sendotzea ere. Izan ere, adostasun sozial zabalenean oinarritzen den politika sustatzeak esan nahi du elkarrizketan oinarritzen den politika garatzea eta funtzio banaketa orekatua bermatzea.

Gobernantza

Euskararen Agenda Estrategikoa proposamen berria egiten du hizkuntza politikaren gobernantzarentzat.

- Eusko Jaurlaritzan, barneko gobernantza:
 - Sail bakoitzaren ardura izango da euskararen kudeaketa edo euskara sailean barneratzea.
 - Sail guztietan egingo dira hizkuntza berdintasuna eta hizkuntza bizikidetzaren bermatzeko planak.
 - Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin elkarlanean ezarriko dira oinarriak eta aurrekontuak.
 - Agenda honen garapenean sortuko den Jarraipen Batzordean zehaztuko dira Eusko Jaurlaritza barneko helburu eta estrategiak.
- Erakundeen arteko gobernantza:
 - Erakunde publikoen eta pribatuen arteko elkarlana bultzatuko da.
 - Gizarte zibilarekiko harremanak eta lankidetzaren sendotuko dira.
 - Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak sustatuko ditu erakundeen arteko harremanak.

Kudeaketa eredia

Euskararen Agenda Estrategikoa Eusko Jaurlaritza osoaren plan estrategikoa da, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak kudeatuko du. Agendaren gidaritza Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak izango du, eta berak koordinatuko du hizkuntzaren normalizaziorako Eusko Jaurlaritzaren sail eta organo guztiek izango duten jarduna.

Agenda honi eman zaion zehar-lerrotasun izaeraren ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren sail guztietan txertatuko dira Agenda honen helburuak, berariaz, bakoitzaren eginkizunari lotuta daudenak. Lehentasuna emango zaio, halaber, helburu hauek sail guztietan kontuan hartu eta abian jartzeari:

1. Euskal herritarren euskararen erabilera handitzea eta kalitatea hobetzea.

- 1.1. Etxean eta lagunartean.
- 1.2. Hezkuntza arautuan eta ez arautuan.
- 1.3. Lan munduan.
- 1.4. Aisialdi-arloan: ingurune digitala, kirola, kultura, hedabideak...
2. Erakunde publikoen eta pribatuen euskararen erabilera handitzea.
 - 2.1. Euskara, gaztelaniarekin batera, zerbitzu eta lan hizkuntza izatea administrazioan.
 - 2.2. Euskara, gaztelaniarekin batera, zerbitzu eta lan hizkuntza izatea Eusko Jaurlaritzaren mendeko sozietate publikoetan.
 - 2.3. Euskara, gaztelaniarekin batera, zerbitzu eta lan hizkuntza izatea lan munduan.
3. Herritarren hizkuntza eskubideen babesa bermatzea.
 - 3.1. Konponbidea izan duten Elebideko intzidentzia kopurua ugaritzea.
 - 3.2. Herritarren hizkuntza eskubideen kontzientzia maila igotzea.
4. Hizkuntza bizikidetzan oinarritzen den gizarte aktibazioa indartzea.
 - 4.1. Euskararen eta hizkuntza politikaren inguruko adostasuna lortzea.
 - 4.2. Euskararen unibertsoa eta bizipena gizarte osoan duintzea.
 - 4.3. Hizkuntza bizikidetzarako portaera berritzaileak sustatzea.
 - 4.4. Euskararekiko atxikimendua eta hizkuntzen arteko harremanak sendotzea.
5. Euskararen lurraldea osatzen dugun eragile publikoekin eta pribatuekin lankidetzan berritu eta ugaritzea.

Helburu hauek sail bakoitzean nola aplikatu beharko liratekeen aztertuko da horretarako sortuko den Jarraipen Batzordean.

Jarraipen eta ebaluazio sistema

Hauxe da Agendaren jarraipena eta ebaluazioa bideratzeko proposamena:

Jarraipena

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren mendeko hiru zuzendaritzak eta HABEko zuzendaritza dira Agendaren arduradun nagusiak, sailburuordea buru dutela.

- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza (HAHNZ)
- Euskara Sustatzeko Zuzendaritza (ESZ)
- Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza (HIKZ)
- Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE)

Agendaren konpromiso, ekimen eta jarduera guztien ikuspegi orokorra, sail guztietakoa, jasotzeko eta horren jarraipena egiteko Jarraipen Batzordea eratuko da, ondoko kideek osatua:

- Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua (batzorde burua)
- Hizkuntza Politikarako sailburuordea
- Hezkuntza sailburuordea
- HABEko zuzendari nagusia
- Etxepare Euskal Institutuaren zuzendaria
- IVAPeko zuzendaria
- Eusko Jaurlaritzaren sailtako Euskara Ataleko arduradun politikoak

Era berean, erakunde hauetako ordezkariak –gutxienez zuzendari mailakoak– ere partaide izango dira:

- Osakidetza
- Justizia
- Ertzaintza

- EITB
- EUSTAT
- Emakunde

Gainera, berariazko erabilera plan bakoitzak (Eusko Jaurlaritza, Osakidetza, Justizia, Ertzaintza) bere Jarraipen Batzorde propioa du, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin koordinatua.

Jarraipen Batzordea izango da, besteak beste, *Euskararen Agenda Estrategikoan* zehaztu diren helburu estrategikoen adierazleak aztertu eta horien jarraipena egingo duena.

Jarraipen Batzordea behar denean bilduko da, baina gutxienez urtean behin, urte bakoitzaren hasieran, aurreko urteko planaren ebaluazioa egiteko eta urtean abian jarri eta kudeatu beharreko jarduerak zehazteko.

Agenda honek lau urteko iraupena izango du, eta urtez urte egingo diren jarduerak eta aurrekontua zehaztuko dira Hizkuntza Politika Sailburuordetzak gauzatutako urte bakoitzeko planean. Horretarako, *4711 Hizkuntza Politika Programan* jasotakoak ere kontuan izango dira.

Agendaren garapenean parte-hartzaile nagusiak honako hauek izango dira, neurri batean edo bestean: Eusko Jaurlaritza (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren bidez), gainerako herri erakundeak, Euskararen Aholku Batzordea, HAKOBA eta askotariko gizarte eragileak.

Euskararen Aholku Batzordeak, hizkuntza politikaren arloan Eusko Jaurlaritzak duen organo aholku-emaile nagusiak, bere baitan ditu euskal erakunde publiko nagusietako ordezkariak eta euskararen esparruko hainbat gizarte eragile eta aditu. Batzordeko berezko kide dira Lehendakaria, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua, Hizkuntza Politikarako sailburuordea, HABEko zuzendari nagusia eta IVAPEko zuzendari nagusia. Horiez gain, bertan daude Eusko Jaurlaritzako (Ogasuna eta Ekonomia Saila, Hezkuntza Saila, EITB), EAEko hiru foru aldundietako, Euskaltzaindiko eta EUDELeko ordezkari bana, Eusko Legebiltzarrak proposatutako 5 kide eta 39 aditu.

HAKOBA (Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordea) hizkuntza politikaren arloan administrazio desberdinek duten jarduna koordinatzeko organo instituzional nagusia da. Bertan daude Eusko Jaurlaritza, EAEko hiru foru aldundiak, EAEko hiru hiriburu-udalak, EUDEL eta UEMA.

Ebaluazioa

Euskararen Agenda Estrategikoaren helburua da euskararen biziberritze prozesua indartzen laguntzeko bide-orria izatea, eta ondorioz, euskararen errealitate soziolinguistikoaren adierazle nagusietan eta eragile guztion arteko lankidetzan zein koordinazioan aurrerapenak eragiten jarraitzea.

Horretarako zehaztu dira Hizkuntza Politika Sailburuordetzaren 4 konpromiso eta 14 ekimen, eta Etxepare Euskal Institutuaren konpromiso bat eta 3 ekimen. Horien guztien zehaztapena dira Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak urte bakoitzeko plangintzarako proposatuko dituen jarduerak.

Ildo horretatik, urterik urte ebaluatuko da Agenda honetan xehatutako konpromiso eta ekimen bakoitzaren betetze maila, konpromiso eta ekimen bakoitza gauzatzeko ezarri diren jarduerak maila kuantitatiboan eta kualitatiboan aztertuz. Honela, maila kuantitatiboan, urteko planean ezarritako jarduerak bete diren ala ez adieraziko da, orotara, gauzatuko jarduera kopurua zein izan den jasoz; maila kualitatiboan, aldiz, jarduera bakoitzaren betetze maila jakinaren irakurketa kualitatiboa egingo da, beti ere, konpromisoari eman zaion erantzunaren egokitasuna neurtzeko.

Ebaluazioak lagunduko digu Agenda honetako konpromisoak eta ekimenak urtez urte berrikusten, eta aipatutako konpromiso horiei erantzuteko urte bakoitzean egokien irudikatzen diren jarduera zehatzak proposatzen.

Jarraian, ezarri diren helburu estrategikoen adierazle kuantifikagarri nagusienak zehaztu dira.

HELB.	ADIERAZLEAK	2011	2016	2020	ITURRIA
1.1	Euskara-gaitasuna \leq 25 urte	% 73,3	% 73,3 (2011)	% 75,0	Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua
1.2	Euskaldunen bilakaera	749.182	749.182 (2011)	839.182	Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua
2.1	Euskararen transmisioa 1: etxetik euskara jaso dutenak \geq 16 urte (euskaldun zaharrak eta jatorrizko elebidunak)	% 20,3	% 21,4	% 22,5	Inkesta Soziolinguistikoa
2.2	Euskararen transmisioa 2: etxetik kanpo euskara ikasi dutenak \geq 16 urte (euskaldun berriak)	% 11,7	% 12,5	% 13,5	Inkesta Soziolinguistikoa
3	Euskararen erabilera \geq 16 urte	% 20,0	% 20,5	% 21,5	Inkesta Soziolinguistikoa
3.1.1	Euskararen erabilera etxean \geq 16 urte	% 17	% 19	% 21	Inkesta Soziolinguistikoa
3.1.2	Euskararen erabilera lagunartean \geq 16 urte	% 21	% 22	% 23	Inkesta Soziolinguistikoa
3.2.1	Eskolako erabilera orokorra LMH4	% 56,4	% 59,4	% 61,4	EAEko Ikasleen Euskararen Erabilera eskola-giroan, 2011-2015 ARRUE proiektua
3.2.2	Eskolako erabilera orokorra DBH2	% 39,9	% 42,3	% 44,7	EAEko Ikasleen Euskararen Erabilera eskola-giroan, 2011-2015 ARRUE proiektua
3.3.1	Euskararen erabilera lankideekin \geq 16 urte	% 21	% 25	% 28	Inkesta Soziolinguistikoa
3.4	Euskararen erabilera sare sozialetan	% 15,4	% 17,6	% 19,5	Inkesta Soziolinguistikoa
4.1.1	Euskararen erabilera Eusko Jaurlaritzan eta haren erakunde autonomiadunetan: zerbitzu hizkuntza		% 69,9 (2017)	% 100	Euskararen erabilera normalizatzeko V. plangintzaldiaren amaierako ebaluazioa
4.1.2	Euskararen erabilera Eusko Jaurlaritzan eta haren erakunde autonomiadunetan: lan hizkuntza		% 38,4 (2017)	% 54,0	Euskararen erabilera normalizatzeko V. plangintzaldiaren amaierako ebaluazioa
4.2.1	Euskararen erabilera sozietate publikoetan: zerbitzu hizkuntza		% 68,9 (2017)	% 100	Euskararen erabilera normalizatzeko V. plangintzaldiaren amaierako ebaluazioa
4.2.2	Euskararen erabilera sozietate publikoetan: lan hizkuntza		% 33,2 (2017)	% 58,0	Euskararen erabilera normalizatzeko V. plangintzaldiaren amaierako ebaluazioa

HELB.	ADIERAZLEAK	2011	2016	2020	ITURRIA
4.3	BIKAIN ziurtagiria lortu duten erakundeak		35 (2017)	40	HPS
5.1	Konponbide egokia izan duten Elebideko intzidentziak		% 87	% 92	HPS
5.2	Etorkizunean euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz hitz egin beharko litzatekeela uste duten herritarrak	% 97,0	% 97,2	% 98,0	<i>Inkesta Soziolinguistikoa</i>
6.1	Terminologia Batzordeak onartutako hiztegi terminologikoak		59 (2017)	83	HPS
6.1	Euskalterm Terminologia Banku Publikoak izandako kontsultak (hiler)		130.000 (2017)	140.000	HPS
6.1	Euskarazko doktorego tesiak		395 (2017)	425	HPS
7.1	Euskarari buruz Eusko Jaurlaritzan egiten ari den lana egoki baloratzen duten herritarrak	% 48,6	% 61,9	% 65,0	<i>Inkesta Soziolinguistikoa</i>
7.4	Euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera	% 62,3	% 65,0	% 67,0	<i>Inkesta Soziolinguistikoa</i>
8	Erakunde publikoekin eta pribatuekin sinatutako lankidetzak hitzarmenak		24 (2017)	28	HPS
9	Nazioarteko erakundeekin sinatutako lankidetzak hitzarmenak		7 (2017)	10	HPS

8 / PLANARI ESLEITUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020 honen garapenerako aurreikusten diren kostu ekonomikoak ondoko taulan ageri dira. Ematen diren zenbatekoak Eusko Jaurlaritzaren 2017ko aurrekontuetan dauden dotazioak dira. Hortaz, Agendaren xedea eta egitekoak definitzerakoan, aurreikusi da 2018, 2019 eta 2020an gutxienez antzeko kredituak izango direla Agendaren garapenerako. Hala, taulan zehaztu da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren aurrekontua, eta 2020ra arteko aurrekontuen aurreikuspena egin da.

EUSKARAREN AGENDA ESTRATEGIKOA		2017	2018-P	2019 (↑% 1)	2020 (↑% 1)
PROGRAMA	4711- Hizkuntza Politika	52.355.841	54.559.565	55.105.161	55.656.212
	4712- Administrazio Publikoaren Hizkuntza Normalizazioa	10.326.583	9.904.177	10.003.219	10.103.251
	4713- Helduen Alfabetatze / Berreuskalduntzerako Erakundea	5.633.358	6.092.226	6.153.148	6.214.680
	4714- Euskalduntzea eta Hizkuntza Normalizazioa	740.000	729.940	737.239	744.612
	4715- Hezkuntza Sistemaren Euskalduntzea	42.368.194	42.590.138	43.016.039	43.446.200
	Sailletako Euskara Atalak	700.000	720.000	727.200	734.472
	Etxepare Euskal Institutua (% 40)	936.068	1.036.556	1.046.922	1.057.391
	GUZTIRA (Programak)	113.060.044	115.632.602	116.788.928	117.956.818

EUSKARAREN ERABILERA PLANAK

(Eusko Jaurlaritza, Osakidetza, Justizia Administrazioa, Lantzen Ertzaintza, EITB)

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin batera jorratzen diren erabilera planetako baliabide ekonomikoak ez dira zehaztu Agenda honetan. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak konpromisoa hartzen du urtez urte jasotzeko erabilera plan horietako kopurua. Erakunde horietako aurrekontuen jarraipena egingo da, berariaz, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaritzaren bitartez, eta Jarraipen Batzordean aztertuko dira.

9 / OINARRIZKO DOKUMENTAZIOA

- *Eta hemendik aurrera zer?* (Euskararen Aholku Batzordea, 2016)
- *Euskadi 2020 Gobernu Programa* (Eusko Jaurlaritza, 2017)
- *Euskara 21. Itun berritu baterantz* (Euskararen Aholku Batzordea, 2009)
- *Euskara Sustatzeko Ekintza Plana. ESEP* (Euskararen Aholku Batzordea, 2012)
- *Euskara Sustatzeko Ekintza Plana. Diagnostikoari buruzko AMIA dokumentuarekin osatua* (Euskararen Aholku Batzordea, 2015)
- *Euskararen Agenda Estrategikoa 2013-2016* (Eusko Jaurlaritza, 2014)
- *Euskararen Agenda Estrategikoa 2013-2016. Jarraipena eta ebaluazioa* (Eusko Jaurlaritza, 2016 (argitaratu gabea))
- *VI. Inkesta Soziolinguistikoa.* (Eusko Jaurlaritza, 2016an aurkeztua)
- *Hizkuntzen Erabileraren VII. Kale-neurketa.* (Soziolinguistika Klusterra, 2017)

/ **ERANSKINA:** EUSKARAREN AGENDA ESTRATEGIKOARI BURUZ ONETSITAKO EBAZPENAK

Kultura, Euskara eta Kirol Batzordeak, 2018ko martxoaren 9an egindako bilkuran, aztergai izan ditu Eusko Jaurlaritzaren komunikazioa, *Euskararen Agenda Estrategikoa* eta aurkeztutako proposamenak, eta, eztabaida egin ondoren, honako ebazpen hauek onetsi ditu.

1. Legebiltzarrak Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari eskatzen dio *Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016)* dokumentuaren ebaluazioa aurkeztu dezala Legebiltzarrean, Kultura, Euskara eta Kirol Batzordearen aurrean, ondoren Legebiltzarreko taldeekin aztertu eta konpartitzeko xedearekin. Halaber, ebaluazio-txostenak ukitzen dituen eremuko eragileekin ere prozesu bera bideratu dezala.
2. Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, euskara gure gizartean kultura eta jatorri desberdinetako herritarren elkargunerako bitartekoa izanik, lehenetsi dezala euskara inklusio, aukera-berdintasun eta kohesiorako tresna moduan, horretarako, besteak beste, harrera-marko eta -protokoloak jasoaz.
3. Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio *Euskararen Agenda Estrategikoaren* baitan Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen garapen-egitasmoa erdietsi eta abiatu dezala euskararen normalizazioari dagokionez.
4. Legebiltzarrak lehendakariari eskatzen dio *Euskararen Agenda Estrategikoaren* baitan euskararen normalizazioaren esparruan hartu dezala lidergoa bere ekintzen eta hitzen bidez gizarteari mezu argiak eta unibokoak emanaz euskara jakiteari eta erabiltzeari buruz.
5. Eusko Legebiltzarrak dei egiten die Eusko Jaurlaritzari, foru aldundiei eta toki erakundeei, orobat, genero-ikuspegia txertatu dezaten euskara-planen diseinuan, aintzat harturik, besteak beste, *VI. Inkesta Soziolinguistikoaren* emaitzak.

6. Eusko Legebiltzarrak dei egiten dio Eusko Jaurlaritzari 86/1997 Dekretua berritzerakoan kontuan hartu dezan euskarako A1 eta A2 maileri buruzko legez besteko proposamena.
7. Eusko Legebiltzarrak balioan jartzen du aurretiaz euskararen alde egindako lana, eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarraitu dezala bultzatzen *Euskara 21, Itun berri baterantz, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP)* eta *Eta hemendik aurrera zer?* dokumentuetan jasotako ildo eta gogoetak. Dokumentu horiek guztiak Euskararen Aholku Batzardeak garatuak dira.
8. Eusko Legebiltzarrak uste du gizarte gero eta eleanitzago honetan, gutxienez ere, elebitasun gero eta orekatuago bat behar dugula, oinarrituko dena hizkuntza bizikidetzarekiko sentsibilitatean, gizarte kohesionatu baten aldekoan, alegia. Eta, horretarako, ahalik eta akordiorik zabalena lortu behar dugu gure gizartearen.
9. Eusko Legebiltzarrak uste du beharrezkoa dela euskararen zeharlerrotasuna bermatzea, hala administrazioko eremu guztietan nola gizarte osoan. Euskararen erabilera bermatu beharra dago lan administratiboan eta herritarrekiko harremanetan, eta, horretarako, garrantzitsua da beharrezko diren pausoak ematen jarraitzea euskara lan hizkuntza izan dadin Eusko Jaurlaritzako sail guztietan; hori dela eta, euskara presente egongo da sail horien guztien plan estrategikoetan eta abian jarriko diren proiektu eta ekimen guztietan.
10. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio aurrera egin dezala euskararen hazkunde soziala finkatzeko ahaleginean, hitzun kopurua areagotuz eta haien hizkuntza gaitasuna hobetuz. Horretarako, Eusko Legebiltzarrak beharrezko jotzen du Eusko Jaurlaritzak honako ekimen hauek mantentzea eta garatzea:
 - a. Helduen euskalduntzea sustatu eta babestea.
 - b. Helduen euskalduntzea kudeatzeko sistema bakar bat bultzatzea, HABEren koordinazioaren pean, zeinak euskararen irakaskuntza sustatzeari lotutako kontu guztiak hartuko baititu kontuan.
 - c. Helduek B2 mailara arte euskara-ikaskuntza doakoa izateko prozesua amaitzea, aurreikusitako mailak gainditzeari lotutako doakotasuna.
 - d. Tituluak lortzeko sistema hobetzea, euskaraz hitz egiten duten pertsonen kopurua handitzeko eta pertsona horiek ahalduntzeko.

11. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio euskararen hiru lurraldeen erakundeen arteko lankidetzaren antolatu eta indartu dezala, eta euskararen nazioarteko aitormena ere bultzatu dezala. Horretarako, Eusko Legebiltzarrak beharrezko jotzen du Eusko Jaurlaritzak Nafarroako Gobernuarekiko eta Euskararen Erakunde Publikoarekiko lankidetzaren bultzatzea eta indartzea, eta euskararen eta hizkuntza bizikidetzaren inguruan ahalik eta adostasun sozial eta politiko handienaren alde lan egitea.
12. Eusko Legebiltzarrak beharrezko jotzen du Etxepare Institutuaren bidez euskararen eta euskal kulturaren nazioarteko proiektzioa sustatzea, eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio horretarako lan egin dezala; Etxepare Institutuaren rola indartuz Euskadiren esanetara dagoen kultura arloko diplomaziazko tresna gisa, kanpoan euskararen irakaskuntza sustatuz irakurle goen, euskararen eta euskal kulturaren katedren eta Euskara Munduan programaren bidez, eta Euskadiko sektore kulturalarekiko koordinazioa bultzatuz, haren presentzia nazioartean sustatze aldera.
13. Eusko Legebiltzarrak Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituren Sailari eskatzen dio egin dezala bere lana euskararekiko zehar-lerroetasuna kontuan izanik, eta *Euskadi 2020 Agenda Digitalak* dituen helburuetan eta estrategietan euskara ere kudeatzeko bidea jorratu dezala beste erakunde batzuekin batera. Era berean, eskatzen dio euskararen ingurune digitalean duen presentzia aztertu dezala eta euskararen erabilera sustatzeko helburu nahiz aukerak aztertu eta bultzatu ditzala beste erakunde batzuekin batera.
14. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio egin dezala bere lana euskararekiko zehar-lerroetasuna kontuan izanik, jorratu dezala *Basque Country Nazioarteko Estrategian* euskararen eremutik egiten den hizkuntza eta kultura aniztasunari lotutako irakurketa beste erakunde batzuekin batera, eta proposamenak landu ditzala.
15. Eusko Legebiltzarrak Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari eskatzen dio egin dezala bere lana euskararekiko zehar-lerroetasuna kontuan izanik, eta bermatu dezala hizkuntza gutxituen presentzia *Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Plana 2017-2020* dokumentuan, eta beste erakunde batzuekin aztertu ditzala hizkuntzen kudeaketa orekatua sustatzeko aukerak.
16. Eusko Legebiltzarrak Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari eskatzen dio kultura-arloko estrategiak txertatu ditzala hizkuntzaren kudeaketan, sakondu dezala euskarazko kultura-eskaintzaren eta kontsumoaren

azterketa egiteko adierazle sisteman, eta jarraitu dezala euskarazko zerbitzu publikoak sustatzen.

17. Eusko Legebiltzarrak Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari eskatzen dio beste erakunde batzuekin jorratu ditzala Gazte Planean euskararen kudeaketari lotutako helburuak eta estrategiak, eta partekatu ditzala gazteak eta euskara uztartzeko gogoetak, programak eta ikerketak.
18. Eusko Legebiltzarrak beharrezko jotzen du euskararen bilakaera soziolinguistikoaren adierazle nagusietan aurrera egiten jarraitzea, helburu estrategiko hauen bidez:
 - a. Euskal herritarren euskararen ezagutza handitzea.
 - b. Euskal herritarren euskararen transmisioa ugartzea.
 - c. Euskal herritarren euskararen erabilera handitzea eta euskararen kalitatea hobetzea.
 - d. Erakunde publikoen eta pribatuen euskararen erabilera handitzea.
 - e. Herritarren hizkuntza eskubideen babesa bermatzea.
 - f. Euskara biziberritzeko ezagutzaren garapenean (ikerikuntzan) eta berrikuntzan (aplikazioan) sakontzea.
 - g. Hizkuntza bizikidetzan oinarritzen den gizarte aktibazioa indartzea.
 - h. Euskararen lurraldea osatzen dugun eragile publikoekin eta pribatuekin lankidetzan berri eta ugartzea.
 - i. Euskararen nazioartekotzeari eta eleaniztasunaren aldeko konpromisoari jarraipena egiteko ekintza kopurua ugartzea.
19. Eusko Legebiltzarrak Jarraipen Batzordeak egindako lana aitortzen du, eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio mantendu dezala aipatutako batzordea, *Euskararen Agenda Estrategikoaren* konpromiso, ekimen eta jarduera guztien ikuspegi orokorra, sail guztietakoa, jasotzeko eta horren jarraipena egiteko.
20. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ebaluatu dezala *Euskararen Agenda Estrategikoan* xehatutako konpromiso eta ekimen bakoitzaren betetze-maila, konpromiso eta ekimen bakoitza gauzatzeko ezarri diren jarduerak maila kuantitatiboan eta kualitatiboan aztertuz. Ebaluazio horrek, gainera, balioko du Agendako konpromisoak eta

ekimenak urtez urte berrikusteko, eta aipatutako konpromiso horiei erantzuteko urte bakoitzean egokien irudikatzen diren jarduera zehatzak proposatzeko.

21. Legebiltzarrak Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari eskatzen dio:

- a. *Euskararen Agenda Estrategikoaren* baitan Hezkuntza Sailarekin elkarlanean, unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sisteman bereizkeria ondorioztatzen duen eta indarrean dagoen hezkuntza-trataera gainditu, eta herritarrek derrigorrezko hezkuntzaren bukaeran euskara eta gaztelania jakiteko duten eskubidea eta betebeharra errekonozituta, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Marko Bateratuak ezarritakoaren haritik gutxienik B2 maila lortzeko hezkuntza-trataera bideratzeko urratsak eman ditzala.
- b. *Euskararen Agenda Estrategikoaren* baitan Hezkuntza Sailarekin elkarlanean, euskara eta euskal kultura ardatz duen hezkuntza-sistema eleanitz bati lotutako hezkuntza-proposamena koordinatu eta garatu dezala Lanbide Heziketan, goi-mailako eta unibertsitate-mailako diru publikoz finantzaturako irakaskuntza-zentroetan hezkuntza ofizial bietan ikasteko eta lan egin ahal izateko planak erdiesteko.

22. Eusko Legebiltzarrak:

- a. Bere aldezen osoa adierazten die euskararen biziberritze sozialaren aldeko lanetan murgildurik dauden eragile guztiei eta, bereziki, herritar guztiei. Horregatik, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarraitu dezala lan egiten etengabeko elkarlan koordinatuan eta elkarriketan erakundeen, gizarte-eragileen eta adituen artean, hala euskararen eremuan nola nazioarteko eremuan, EAEko hezkuntza-aniztasuna eta hezkuntza bizikidetzaren bermatuz.
- b. Adierazten du euskara gure kultur ondasunaren zutabea dela, EAEn hitz egiten diren beste hizkuntzekin bizikidetzaren eredu batean garatu behar dena, alderdien arteko liskarretatik at.
- c. Legebiltzarrak Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari eskatzen dio, ofizialak ditugun bi hizkuntzen oreka eta bizikidetzaren xede izanda, euskararen aldeko ekintza positiboak bultzatu eta indarrean jarri ditzala, aurkitzen den desabantaila eta egoera zaurgarria gainditzearekin batera, euskaldunon hezkuntza-eskubideak ere bermatzeko.

23. Eusko Legebiltzarrak beharrezko jotzen du euskararen erabilera sustatu eta zabaltzea aisialdian eta eremu funtzional ez formaletan, *Euskararen Agenda Estrategikoan* zehaztutakoak sustatuz; halaber, ingurune digitalean euskarazko edukiak eta tresna digitalak sortzea, elkarlanean hezkuntza-, kultura- eta aisialdi-edukiak sortzen dituzten unibertsitateekin, erakundeekin eta pertsonekin, eta euskararen erabilera sustatzea eremu sozioekonomikoan, zaintza-eremuan, aisialdian, kirolean, hedabideetan eta kultur industria eta jardueretan, era berean, bere interesa eta prestigio soziala indartuz.